ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2008ko otsailaren 18a > Astelehena > IV. urtea > 178. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Euskal Unibertsitatea ez da inoren ordezkoa, bere toki propioa izango du"

**Maite Aristegi**
Euskal Unibertsitatearen sustatzailea > 06

**GIZARTEA**
Haitin egingo duten nutrizio zentroa aurkeztu du Saiatuzek Bergaran > 04

**DEBAGOIENA**
Merkatu txikiak, herriz herri dabilen eskaintza ibiltaria > 09

**KULTURA**
Kassin + 2 brasildarrek kontzertua egin zuten zapatuan Arrasaten > 24

**FUTBOLA**
UDAk irabazi, Mondrak berdindu eta Aloñak galdu > 16

**MERKATARITZA** > LEGE PROIEKTUA

## Jai egunetan 150 m$^2$-tik gorako dendak itxi nahi dituzte

**JAURLARITZA** Joan zen urtarrilaren 29an onartu zuen Jaurlaritzak Merkataritza Jardueraren lege proiektua

**DEBAGOIENA** Merkataritza Ganberaren datuen arabera, ibarrean 66 dendari eragingo die ordutegiak mugatzeak

**AFEKTATUAK** Muga horrek eragingo die, besteak beste, okindegiei, gozotegiei eta txinatarren dendei > 02-03

**SEXOLOGIA** > ZAHARRAK

## Edadetuen sexologia, liburu baten

'Ximur ximurrak' liburua kaleratu du Arrasateko Sexologia Zerbitzuak > 05

## G2a

### Uarkape beteta Des-Kontrol taldearen aldeko kontzertuan

Sei talde aritu ziren zapatu gauean Arrasateko Uarkape pilotalekuan izandako kontzertuan. Des-Kontrol arrasatearrek jasotako salaketa baten isunari aurre egiteko dirua batzea zen helburua eta deialdiarekin bat egin zuten The Motherfuckers, Enboskada, Never Surrender, Ukabilkada eta Arkada Social taldeek. Antolatzaileak oso pozik azaldu ziren jasotako erantzunarekin. Eta Uarkapen bildutakoek taldeek eskainitako ikuskizunarekin gozatu zuten > 23-24




**LEHEN ILARAN** Ikusle talde bat, zapatuko kontzertuko une baten, Uarkapeko eszenatokitik hurbil.
XABI URTZELAI

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**KIROLA** > ESKUBALOIA

## Ford Mugarri eta Bergara, mailari eusteko borrokan

Euskadiko Ligan, mailari eusteko borrokan dira Arrasateko Ford Mugarri eta Bergara eskubaloi taldeak. Asteburuan ez zuten emaitza positiborik lortu. Bergararrek etxean galdu zuten zapatuan, Lea Corazonistasen aurka. Bost goleko aldearekin nagusitu ziren gasteiztarrak, 34-39.

Ford Mugarrik puntu bakar bat lortu du oraingo asteburuan etxean jokatutako bi partiduetan. Egubakoitzean, Basauriren aurka berdindu zuten. Zapatuan, sailkapeneko goialdean den Barakaldo izan zuten bisitari eta bizkaitarrek izan ziren nagusi, 27-28ko emaitzarekin. > 18

markeline
haurrentzako moda
Inoiz baino merkeago!
Otsailak 22 eta 23 azken egunak
Herri Lagunak 6, behea Bergara Tel.: 943 76 05 24

**MERKATARITZA** > SALTOKI HANDIEN ORDUTEGIAK

# Jai egunetan itxita 150 metro koadrotik gorako dendak

**LEGEA** Orain arte 400 metro koadrotik gorako azalera zuten dendei soilik ipintzen zien muga Eusko Jaurlaritzak

**ORDUTEGIA** Astean ezingo dituzte dendak zabalik izan 72 ordutik gora; jai egunetan 12 orduz gehienez

**ERAGINA** Muga horrek eragingo die, besteak beste, okindegiei, gozotegiei eta txinatarren dendei

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Domeka goiza da. Lagun batek bere urtebetetze festara gonbidatu zaitu eta ez duzu oparirik eramateko. Zer egin pentsatzen hasi eta bi aukera: oparirik gabe joan edo ia edozein ordu eta egunetan zabalik egoten diren txinatarren denda horietako batean zerbait erosi. Ia beti zabalik izaten dituzte dendak txinatarrek goizetik gauean berandura arte, berdin aste barruan zein asteburu eta jai egunetan ere.

Bazkaritarako ogia edo postrerako pastelak erosi behar izanez gero, okindegira edo gozotegira egin behar bisita. Hauek ere gero eta gehiago zabalik egoten dira jai egunetan ere.

Irekiera ordutegiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak 400 metro koadrotik gorakoei hainbat muga ipini zizkien, besteak beste, merkatari txikiei kalterik ez egiteko. Orain, muga berberak ipini nahi dizkie 150 metro koadro baino gehiagokoei ere. Hortaz, eragingo lieke bazar txinatarrei, okindegiei eta gozo dendei, besteak beste.

**LEGEA 150 METRO KOADROKOEI ERE**

Eusko Jaurlaritzak joan zen urtarrilaren 29an onartu zuen Merkataritza Jardueraren Legea aldatzeko proiektua. Izan ere, merkataritza ganberek erregulatu nahi dute mugarik gabe lan egiten duten hainbat saltokiren lan ordutegia.

Lege berriak 150 metro koadrotik gorako saltokien ordutegia mugatuko luke. Orain arte, 400 metro koadrotik gorako saltokiek baino ez zituzten irekiera mugak. Gehienezko lan jarduna astean 72 ordukoa zen eta urtean zortzi domeka edo jai egunetan zuten denda zabaltzeko aukera. Gainera, nahi eta nahi ez urteko egun jakin batzuetan ateak itxi beharko dituzte: urtarrilaren 1ean eta 6an; maiatzaren 1ean; abenduaren 25ean eta probintzia bakoitzeko zaindariaren egunean.

**ERAGINA IBARREKO 66 DENDATAN**

Eusko Jaurlaritzak lege proiektuari aurrera jarraitzeko bidea irekitzen badio, EAEn 150 metro koadrotik gorako 2.000 denda ingurutan izango du eragina. Horietatik gutxi gorabehera 500 dira txinatarren bazarrak, domeka eta jai egunetan ere zabalik izaten direnak. Merkataritza Ganberaren datuen arabera Debagoienean 66 dendari eragingo die ordutegiak mugatzeak.




**BAZAR TXINATARRAK** Gaur egun domeketan eta jai egunetan ere zabalik izaten dira txinatarren hainbat denda. JOSETXO ARANZABAL

Industria sailburu Ana Agirrek esan du legea aldatu nahi dela, “merkataritza gune guztiek ordutegi muga berdinak izan ditzaten, txinatarren bazarrak izan ala ez izan”.

Ibarrean hainbat bazar txinatar daude . Merkataritza ordutegien lege aldaketaren gainean duten iritzia jasotzeko eurengana jo dugunean, ordea, ez digute ezer esan nahi izan.

Hortaz, Euskadiko Txinatar Elkarteko idazkari Zhong Jing Yang-engana jo dugu. Honek esan digunez, "lege aldaketak ez die batere onik egingo kontsumitzaileei. Txinatarrok jai egunetan dendak zabaltzen baditugu da merkatuak hala eskatzen duelako. Jende askok, erosotasunez, ezusteko bat sortu zaiolako-edo, txinatarron bazarretara jotzen du beste dendak itxita badaude".

### MERKATARITZA JARDUERAREN LEGEA

**> ORAIN ARTE**
Orain dela bi urte eta erdi Eusko Jaurlaritzak merkataritza ordutegiak arautzeko legea onartu zuen. Merkataritza gune erraldoiei ez ezik 400 metro koadrotik gorakoei ere eragiten die.

**> LEGEAREN ALDAKETA**
Gaur egun, 400 metro koadrotik gorako merkataritza guneei soilik eragiten die. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak nahi du 150 metro koadrotik gorako denda denei eragitea.

**> ORDUTEGIA**
Saltoki handiak 72 orduz zabal daitezke aste osoko lanaldia kontuan hartuta; jai egunetan 12 orduz.

**> JAI EGUNAK ETA DOMEKAK**
Denda txikiak nahi dutenean zabal daitezke. Handiak, aldiz, urteko zortzi jai egun edo domeketan bakarrik.

**> DEBEKATUTAKO EGUNAK**
Ezin dira denda handiak zabaldu urtarrilaren 1ean eta 6an, maiatzaren 1ean, abenduaren 25ean eta probintziako zaindariaren egunean; Gipuzkoan eta Bizkaian uztailaren 31n eta Araban apirilaren 28an.

**> HELBURUA**
Legea aldatuta asmoa da herri eta auzoetako denda txikien iraupena ziurtatzea eta denda handi guztiek ordutegi muga berdinak izatea.

Zhong Jing Yang-ek dio ordutegien legea aldatzeko proiektuak aurrera eginez gero, txinatarrek ere errespetatuko dutela. "Dena dela, ikusi beharko da ea guk dendak itxiz gero, zein onura ekarriko liekeen horrek herrietako dendari txikiei. Izan ere, merkataritza gune handiek egiten diete seguru asko guk baino kalte gehiago".

Bestalde, gaineratu digu, udal bakoitzak jakinarazi beharko diela dendariei zein ordutegirekin eta zein jai egunetan zabaldu ahal izango dituzten dendak.

**ISUNAK**

Legea onartu ostean, ordutegia eta jai egunetan denda ixteko neurria errespetatzen ez badute 30.000 eta 600.000 euro arteko isuna ordaindu beharko dute merkatariek.

Izan ere, beste hainbat zehaztasunen artean Merkataritza Jardueren Legeak dio herri bakoitzean merkataritza ordutegiak arautzeko orduan kontuan hartu behar direla herriko ohiturak: kulturalak, sozialak zein erlijiosoak. Era berean, erreparatuko zaie herritarren merkataritza beharrei. Gainera, domeka atseden eguna dela ere hartu behar da aintzat. Hortaz, dendari bakoitzak erabakiko du ordutegia, beti ere, legeak esandakoa errespetatuz eta bezeroei jakinaraziz.

**DENDAK ZABALTZEKO LIZENTZIAK**

Merkataritza Jardueraren Legearen beste aldaketa bat merkataritza lizentzien gainekoa da. Horren arabera udalek izango dute ardura lizentzia bakarra emateko. 2009ra arte udal baimenaz gain, Eusko Jaurlaritzak bigarren lizentzia bat eman beharko dio denda berri bat zabaldu nahi duenari, baina 2010etik aurrera nahikoa izango da udalekoarekin. "Orain arte ezin da zabaldu denda bat Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren baimenak esku artean izan ezean. Udalean baimena eskatzeko interesatuek proiektua aurkeztu behar dute eta dendaren neurriak zehaztu, besteak beste; azken finean eraikuntza araudia betetzen dutela egiaztatu. Horretaz gain, jarduera lizentzia ere tramitatuko dute", esan digute Arrasateko Udaleko Hirigintza Sailean.

**Eusko Jaurlaritzak dio legea aldatuta lortu nahi dela denda guztiek ordutegi muga berdinak izatea**

Hala ere, 2010ean lizentzia bakarra eman artean, egokitzapen epea egongo da. Tarte horretan, udalek merkataritza guneak, txikiak zein handiak, kontuan hartu beharko dituzte hirigintza planak egiteko orduan. Izan ere, erdi guneak girotzeko eta herrietako ekonomia bultzatzeko ezinbestekoak dira dendak. Ana Agirreren esanetan, "Eusko Jaurlaritzaren nahia da mantentzea herri gune trinkoaren eta sozialki bateratuaren eredua; dendek garrantzi handia daukate eredu horretan".

**EROSKETA OHITUREN ALDAKETA**

Aldaketa hauek merkataritzaren modernizazioak eta eraldatzeak eragindakoak dira. Merkataritza bera aldatzen doan heinean kontsumitzaileen ohiturak ere aldatu egiten dira, baita merkatua kontrolatzeko estrategiak ere. Horrela, bermatu nahi da jendeari eskaintzea kalitatezko produktuak, aniztasuna egotea eta salneurri egokian. Gainera, jendeak erosketak egiteko daukan denborari ere erreparatuko zaio. Baina oraindik herrietako gertuko dendek badute garrantzia, azken batean horretara ohitu garelako.

Lege-proiektua merkataritza ganberek eta merkatariek eurek aztertu dute jadanik eta Eusko Jaurlaritzatik pasa ostean, Legebiltzarrean eztabaidatu eta onartu beharko dute orain.



**Jose Luis Letamendi**
Txanda merkatarien elkarteko presidentea

Oñatin ez du eraginik izango legea aldatzeak, gure aldekoa dela ere esan genezake. Aldaketa egin dute merkataritza gune handien ordutegia mugatzeko eta lehendik bazuten jai egunetan zabaltzeko debekua. Orain 150 metro koadrotik gorakoendako ipini dute muga, batik bat bazar txinatarren jarduera mugatzeko. Dena dela, horrelako neurriak hartzea ona da guretzat. Izan ere, horrek esan nahi du ez gaituztela gu, merkatari txikiok, bakarrik kontrolatzen gainontzekoak ere. Guk ireki genezake denda edozein egunetan, baita domeketan ere; baina orain arte arauz ez baina ohituraz domeketan itxi egin ditugu dendak eta ordutegi bertsua dugu. Beste dendariek jai egunetan zabalduko balute gure kalterako litzateke. Hortaz, hobea da ordutegi zehatzak betetzea guztiok. Jendea ohituta dago domeketan dendak itxita izatera.



**Joseba Cervo**
Joseba harategikoa, Bergara

Nik egunero, domeka goizetan ere, zabaltzen dut harategia baina lokalak 150 metro koadro baino gutxiago dituenez, lege aldaketa honek ez dit eragingo. Hala ere, uste dut jendeari zerbitzua eskaintzeko gaudela dendariok eta herritarren eskariei erantzun behar diegula. Hau da, herritarrek domeketan dendak zabalik nahi badituzte zabalik izan behar ditugu eurek erosketak egin ahal izateko. Baina erabakia dendari bakoitzaren esku dago, lan egin nahi duenak denda zabalduko du eta bestela ez. Dena dela, uste dut arau hori merkataritza gune handiei eragiteko dela batik bat. Hortaz, merkataritza arauak ipintzen dituzten agintariek egin behar luketena da ordutegiak mugatu; eta jai egunetan zabaltzea galarazi beharrean, hainbeste denda handi herrietako erdiguneetan ipintzen ez utzi.



**Mari Carmen Gantxegi**
Bolintxo okindegia, Bergara

Guk hainbat okindegi dauzkagu ibarrean eta Merkataritza Jardueraren Legea aldatzeko proiektuak ez digu eragingo. Gure dendetako bat azalera horren mugan egongo da beharbada baina oro har ez dugu aldaketa sumatuko. Lege berriak dendari txikiengan eraginik izango duen ala ez esatea zaila da. Jendea ematen zaion horretara moldatzen da. Domeka gauean zabalduz gero ere ziur norbait etorriko litzatekeela erostera. Baina jende askok merkataritza gune handietara joateko joera dauka orain eta dendari txikiok handien kontra ezin dugu ezer egin, eurek jai egunetan ere zabaltzeko erabakia hartzen badute. Gaur egun, arazorik handiena da aste bukaeretan lan egiteko gertu dagoen jendea aurkitzea. Gainera, eroslerik ez badabil ere berdin-berdin ordaindu behar zaio langileari.



**Angel Alonso**
Ibai Arte merkatarien elkarteko presidentea

Arrasateko Ibai Arteko presidente naizen aldetik esan dezakedan bakarra da legeak betetzeko egiten direla. Araua txinatarren denden aurkakoa dela diote batzuek baina ez da horrela, denda handiei eragingo die, txinatarrak izan ala ez. Arrasaten, hala ere, ez dut uste inongo dendari eragingo dionik. Dena dela, Ibai Arten ez dugu bazkide modura txinatarren dendarik ezta 150 metro koadrotik gorako dendarik domeketan eta jai egunetan zabaltzen duenik ere. 150 metro koadrotik gorakoa izan daiteke, esaterako, merkataritza zentro bat eta legea aldatu ezean eta jai egunetan zabalduko balute merkatari txikiongan izango luke eragina, ezin dugulako zentro horiekin lehiatu. Orain, Arrasateko merkataritza zentro handiak jai egunetan zabaltzen ez dituztenez, ez digu guri kalterik eragiten.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU
EROSKI
Erosten jakin

**SAIATUZ** > PROIEKTU BERRIA

# Haitin nutrizio zentro bat eraiki nahi du Saiatuz taldeak

Zapatuan 55 pertsona inguru elkartu ziren dirua biltzeko Bergaran egindako bazkari solidarioan

3.900 euro behar dituzte nutrizio zentrorako sukaldea, jangela eta oheak erosteko



**NUTRIZIO ZENTROA** Irudian agertzen dena da Haitin hornitu nahi dute nutrizio zentroa. SAIATUZ




**BAZKARI SOLIDARIOA** Juan Kruz Mendizabal apaiza (ezkerrean) eta Saiatuz taldeko kideak zapatuan Sierbetan. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Aurreko urteko proiektuak izandako arrakasta ikusita, Saiatuz taldekoek aurkeztu dute dagoeneko 2008rako erronka berria. Haitira begira ipini dira, oraingoan, eta Jacmel herrian nutrizio zentro bat eraiki nahi dute. Saiatuz taldea Bergara, Arrasate eta Donostiako gazte talde batek osatzen du eta Haitin aurrera eramango duten proiektua Jacmeleko karitatezko mojekin elkarlanean egingo dute. Zumarragako talde batek zentroko paretak eraiki ditu, eta Saiatuzekoek sukaldea, jangela eta oheak ipiniko dituzte. Zentroa martxan jartzen dutenean karitatezko mojek egingo dute hango lanaren jarraipena.

Saiatuz taldeko kideek azaldu dute Haitin pobrezia ikaragarria dagoela eta familiek, gainera, seme alaba asko dituztela. Horren ondorioz haur askok desnutrizio arazoak jasaten dituzte. Hori horrela, eraiki nahi duten nutrizio zentroan egoera txarrenean dauden umeak jasoko dituzte. Hamabost egun inguru pasako dute haurrek bertan, bere pisua berreskuratu arte. Baina honez gain heziketa lan bat ere egingo dute Jacmelen. Haurrak zentroan jasotzearekin batera, hauen familiei lurrak ustiatzen erakustea da asmoa. Behar dituzten elikagai gehienak euren lurretatik jaso ditzaten eta autosufizienteak izateko ahalmena izan dezaten.

Hori guztia lortzeko 3.900 euro behar dituzte eta ekimen desberdinak antolatu dituzte dirua jasotzeko. Zapatuan Bergaran bazkari solidarioa egin zuten eta 55 pertsona elkartu ziren. Maiatza hasieran Donostian beste bazkari solidario bat egitekotan dira, eta horrez gain bidezko merkataritza postuak ipintzen jarraituko dute.

**HAITI**

Haiti Dominikar Errepublikako estatua da 45.200.000 biztanle dauzka eta horietatik gehienak nekazaritzatik bizi dira. Bizi itxaropena 59 urtekoa da eta analfabetismo maila %47koa da. Nazio Batuen Erakundeak, herrialde desberdinen garapen maila neurtzeko, egindako zerrendan 146. postua beteko luke Haitik. Espainia 13. postuan legoke.

Saiatuz taldeak kontu korrontea ireki du Euskadiko Kutxan laguntzak jasotzeko. Proiektuan interesa dutenek, bestela, *saiatuz@hotmail.com* helbide elektronikora idatzi dezakete.

**GAZTEAK**> MARTXOAREN 21ETIK 24RA BITARTEAN

# Aurtengo Gazte Topagunea Lezon izango da

Dagoeneko salgai daude Arrasateko Irati tabernan, martxoaren 21etik 24ra bitartean, egingo den Gazte Topagunera joan ahal izateko txartelak




**AURKEZPENA** Egubakoitzean Gazte Topagunearen aurkezpena egin zuten Arrasateko gaztetxean. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Arrasateko gaztetxeak hartu zuen, joan zen egubakoitzean, aurtengo Gazte Topaguneko aurkezpena. Oraindik hilabete baino gehiago falta da ekitaldi hori izateko. Baina, dagoeneko hasi dira herriz herri aurkezpenak egiten.

Lezon izango da aurtengo Gazte Topagunea, martxoaren 21etik 24ra bitartean. Salgai daude hara joan ahal izateko bonoak. Arrasateko Irati tabernara joan beharko da horiek eskuratu nahi dituena. Otsailaren 23ra arte, hamarnaka 35 eurotan salduko dira eta data horretatik aurrera, 40 euro balioko du txartel bakoitzak.

Aurkezpenean jakinarazi zutenez, akanpalekua egongo da. Horrez gain, tailerrak, kontzertuak, hitzaldiak, txalapartarien topaketa, gazte jaialdia, erakusketak, kale animazioa eta beste hainbat ekitaldi egin ahal izateko lau gune egokituko dira Lezon: eskola gorria, gaztetxe gunea, kultur gunea eta herri gunea, hain zuzen.

**IDATZIA**

Gaztetxean egindako agerraldian, aurtengo Gazte Topagunerako egin den komunikatua irakurri zuten. Etorkizunak "izen bakarra" duela azpimarratzen da horretan: independentzia. "Amestu dugu hamaika aldiz gauaren ilunean argiz idazten genuela independentzia Euskal Herriko zeruan" aipatu ostean, orain, "ametsak amestu ordez betetzea erabaki dugu", gaineratzen du.

Idatzian zera salatzen dute: "Parisen, Madrilen, Iruñean eta Gasteizen gotortzen diren gorbatadunek euskal herritarrak euroaren zeinuaren menpeko subjektu abstraktu garen gauera ekarri gaituzte". Baina, era berean, "ilunabar horretan, independentzia hizki larriz idaztea erabaki dutela", azpimarratzen dute.

**ARRASATE** > SEXOLOGIA ZERBITZUA

# Edadetuen sexologia aztergai liburu baten

Emakumezko eta gizonezko baten testigantzen bitartez, edadetuen sexologia aztertu dute 'Ximur xamurrak' izenburuko liburuan

**UBANE MADERA** > ARRASATE

*Ximur xamurrak*. Horixe da Udal Sexologia Zerbitzuak argitaratu duen liburu berriaren izenburua.

Helburu jakin batzuekin argitaratu dute liburua: "Bi helburu ditu. Batetik edadetuen sexualitateari errekonozimendua ematea, existitzen dela eta sexualitatea daukagula bizitzako etapa denetan, baita edadetu garenean ere bai. Eta bestetik, gurako genuke jende edadetuarendako baliagarria izatea; eta behintzat irakurtzen badute, eskuratu eta komentatu edo sexualitatearen inguruan aitzakia horrekin berba egiten badute, guretako hori ja baliagarria da". Halaxe azaldu du Larraitz Arandok, liburuaren egileak eta Udal Sexologia Zerbitzuko arduradunak.

**IBARREKO TESTIGANTZAK**

Liburu horretan, hiru pertsonaren lekukotasunak jaso dituzte, elkarrizketa bidez eginda dago eta bi zatitan bereiztu dute: alde batetik, kontatu dute pertsona horiek lehen zela bizi zuten sexualitatea eta bestetik, orain zela bizi duten. Horrez gainera, gomendio txiki batzuk ere azaltzen dituzte. Egileek uste dute, modu horretan, irakurle edadetuak identifikatuta sentituko direla irakurtzen dutenarekin: "Liburuan daude ibarreko hiru pertsonen testigantzak. 71, 60 eta 68 urteko pertsonak dira, bi emakumezko eta gizonezko bat. Eurek kontatzen dute euren bizitza normalean sexualitatearekin lotuta dauden euren esperientziak, bizipenak, kuriositateak… orduan uste dugu erraza izango dela edadetuek irakurtzea, eurendako gauza oso gertukoak edo antzerakoak izango dira-eta euren bizitzetan pasatzen direnak", azaldu du Sexologia Zerbitzuko arduradunak.

Era berean, kontatu du ez dela horren zaila izan lekuko horiek aurkitzea: "Nahiko jarrera ona erakutsi digute. Egia da edadetu batzuk berez gerturatzen direla Sexologia Zerbitzura eta hona etortzen diren neurrian ikusten da badutela interesa sexualitatearen inguruan, kanpoan errekonozitzen ez den interesa. Horregatik pentsatu genuen zerbait egin genezakeela hori errekonozitzeko eta eurendako erremninta bat sortzeko".




**LIBURUAREKIN** Larraitz Arando, idatzi duen liburua eskuetan duela. UBANE MADERA

**ITXURA ZAINDUTA**

Larraitz Arandok azpimarratu gura izan du, baita ere, kontuan hartuta edadetuei zuzendutako ekimena dela, liburuaren itxura bereziki zaindu dutela eta hainbat aspektu kontutan hartu dituztela; adibidez, ohikoa baino letra handiagoarekin idatzitakoa da, eta argazkiekin osatu dute. Eta hizkuntza kontuak ere zaindu dituzte, liburuari ahalik eta hedapen handiena eman ahal izateko, liburuaren jatorrizko hizkuntza euskara den arren, gaztelaniara ere itzuli dute-eta.

**DOAN ESKURA DAITEKE, GAURTIK**

*Ximur xamurrak* liburuaren 2.000 ale argitaratu dituzte oraingoz, "ikusten badugu bukatzen direla, eskatuko dugu gehiago", azaldu du Arandok.

Dagoeneko banatu dituzte Arrasaten dauden lau zaharren egoitzatan (Musakolakoan, Toki Argin, Uribarrin eta Abaroan) hango bazkideek gura badute irakur dezaten.

Horrez gainera, interesa duen beste edozein herritarrek, Biztanleen Arreta Zerbitzuan edo Sexologia Zerbitzuan bertan ere eskuratu ahal izango du, esandako moduan, doan.

---

**ARRASATE** > JARDUNALDIAK

## Billy Wilderren 'Uno, dos, tres' filma jardunaldiak bukatzeko

Berlinen, gerra hotzean girotuta dago filma; Oscar Alvarez irakaslea izango da filmaren inguruko azalpenak emango dituena



**'UNO, DOS, TRES'** Billy Wilderen filmeko irudi bat GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Arizmendi Ikastolak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarlanean antolatutako *Historia zinemaren bidez* jardunaldien azken saioa izango da bihar, martitzena, Arrasaten.

Oraingoan, Billy Wilder zinegile ezagunak 1961ean egindako *Uno, dos, tres* komedia ezaguna ikusteko aukera izango da. Oscar Alvarez irakaslea izango da filmaren inguruko azalpenak emango dituena. Martitzeneko jardunaldia euskaraz izango da. Ohikoa den moduan, Kulturateko saioa 18:00etan hasiko da.

Berlinen, gerra hotzaren sasoian girotuta dago *Uno, dos, tres*. James Cagney, Horst Buchholz eta Pamela Tiffin dira filmeko protagonistak. Coca-Colako exekutibo baten harira, komunismoaren eta kapitalismoaren arteko borroka islatu zuen Wilderrek. 113 minutuko iraupena dauka filmak.

---

**OÑATI** > INGURUMENA

## Natur Eskolaren eskutik, Ingurumen Astea hasiko da gaur arratsaldean Oñatin

Aranzadi Zientzia Elkartearen 'Euskal Herriko narrasti eta anfibioak' erakusketa zabalduko dute gaur kultura etxean

**E.M.** > OÑATI

Gaur, astelehena, hasiera emango zaio Oñatin Ingurumen Asteari. Aurtengoa 12. ekitaldia da eta Debagoienarekin zerikusia duten gaiek protagonismo nabaria izango dute datozen egunotako ekitaldietan.

*Euskal Herriko narrasti eta anfibioak* erakusketarekin hasiko da Ingurumen Astea. Erakusketa kultura etxean izango da ikusgai martxoaren 21era bitartean, 18:30etik 20:30era. Aranzadi Zientzia Elkarteak prestatutako erakusketa da gaur zabaltzen dutena. Antolatzaileen arabera, bi dira Ingurumen Astearen helburuak: Natur Eskolaren lana ezagutzera ematea batetik eta Ingurumenarekin zerikusia duten gaiak plazaratzea.

**HAINBAT EKITALDI**

Erakusketa eta hitzaldien gain, neska-mutikoei zuzendutako ipuin kontaketa saioak (hilaren 26an eta 28an), zuhaitz azoka (martxoaren 1ean) eta zuhaitz eguna (martxoaren 2an) iragarri dituzte, besteak beste. Lehen hitzaldia hurrengo astelehenean, otsailaren 25ean, izango da. Miguel Mari Elosegik Barreraefektua jaunarengan gaiaren gainean jardungo du Natur Eskolan, 19:00etan. Eguenera arte, hilaren 29ra arte, egunero hitzaldi bat izango da bertan. Bestalde, bi film emanaldi egingo dituzte: *Naturaleza muerta* ikusteko aukera izango da eguenean eta hilaren 28an, *Tierra*.

Euskal Unibertsitatea izango denaren proiektua aurkeztu berri dute. Sustatzaileen artean, Maite Aristegi bergararra dago. Nazio Eztabaida Gunearen izenean jarduten du horretan. Euskal Unibertsitateak egungo unibertsitateen mapan dauden "gabeziei" erantzungo diela esaten du, eta ondorioz, "ez da inoren ordezkoa izango, bere toki propioa izango du".

**Maite Aristegi** > Euskal Unibertsitatearen sustatzailea

# "Euskal Unibertsitatea ez da inoren ordezkoa, bere toki propioa izango du"

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

**Maite Aristegi bergarararekin egon gara asteon, Euskal Unibertsitatea izango denaren gainean berba egiteko. Udako Euskal Unibertsitatea, Kontseilua eta Nazio Eztabaida Gunea bultzatzen ari diren proiektua da. Aristegi azken mugimendu horren izenean lan egiten du hor.**



Maite Aristegi Euskal Unibertsitatearen sustatzaileetako bat da. GOIENKARIA

**Joan zen astean Euskal Unibertsitatea 2010erako jarri nahi dela martxan jakinarazi duzue. Zertan datza zehazki proiektu hori?**

Proiektu horren jatorria Udako Euskal Unibertsitatean dago, 2003an. Orduan erabaki zuen unibertsitatea sortzea, helburua beti izanik bera horren bultzatzailea izatea. 2004an lan-taldea hasi zen lanean eta hortik, irten zen Euskal Unibertsitatearen gaineko lehenengo zirriborroa. Zirriborro horretatik oinarriak irten ziren.

**Zeintzuk dira oinarri horiek?**

Euskal Herriko lurralde guztietako ikasleendako balioko duela eta unibertsitate eleanitza izango dela, euskaldunen komunitatea sortzen eta laguntzen lagunduko duena. Horrez gain, Europako unibertsitateekin homologatua izatea eta zerbitzu publiko bezala herriari zuzenduta egongo da. Nolabait, orain dagoen hutsunea betetzera joango da. Orain ez dago euskaldun guztiondako unibertsitaterik, euskara eta Euskal Herria ardatz dituena. Hori oso garbi ikusten da Nafarroan eta Iparraldean.

**Oinarriak zehaztu ondoren, zer egin zuen esandako lan-taldeak?**

Bidelagunak topatzeari ekin zion. Hasteko Euskararen Kontseilua lortu zuen eta ondoren, Nazio Eztabaida Gunea sartu zen. Horren izenean parte hartu izan dut nik proiektuan. Eztabaida Gunea hor dago garbi ikusi delako Euskal Herrian bizi iraunpenerako eta garapenerako hezkuntza oso garrantzitsua dela eta gabezia hori oso argia dela. Hortik aurrera, hiru bidelagunekin protokolo bat landu da, Euskal Unibertsitatea martxan jartzeko.

**Horrek lagunduko al du euskararen normalizazio prozesuan?**

Bai, duda barik. Argi dago hutsune bat dagoela eta ikasle askok moztuta duela euskaraz ikasteko eskubidea. Orduan uste dugu oso lagungarria izango dela. Kontseiluak oso pozik hartu du eginkizun hori eta horretan gabiltza denok.

**Zer urrats emango dituzue hemendik aurrera?**

Dauden oztopoak gainditu eta bidelagun gehiago bilatu behar dira. Eragile politiko eta sozial gehiago egon behar gara. Egia da orain arte egindako hartu emanen erantzuna oso ona izan dela. Orain hori zerbait positiboan gauzatzea falta da. Lehenengo pausua, babes gehiago lortu ostean, fundazio bat sortzea da. Espero da udarako horren berri eman ahal izatea.

**Baina, unibertsitate bat martxan jartzeko diru asko behar da. Nondik aterako duzue?**

Egia da ez dela lan erraza, bestela lehenago egingo zen. Baina, bidelagun nahikoak topatuz, lana ondo eginez eta dauden oztopoak gaindituz gero, bideragarria izan daitekeela ikusi da azterketetan, ez da defizitarioa.

EGUNGO GABEZIA

**"Unibertsitateen mapan orain dauden hutsuneak eta gabeziak betetzera joango da Euskal Unibertsitatea"**

ERRONKAK

**"Dauden oztopoak gainditu eta bidelagun gehiago bilatu behar dira. Orain arteko erantzuna oso ona da"**

BERRIKUNTZA

**"Bertaratu gabeko hezkuntzari garrantzia eman nahi zaio, telematikaren bitartez"**

**Lehenengo campusa non eraikiko den zehaztu duzue?**

Ez. Begiratze lanetan jardun dugu eta Nafarroan edo Gipuzkoan erraztasun gehiago egon daitekeela ikusi dugu eta, bereziki, Gipuzkoan. Baina, oraindik erabaki barik dago. Hala ere, ez dut uste lehenengo campus hori Debagoienean kokatuko denik. Gainera, kontuan hartu behar da unibertsitate horrek berrikuntza bat duela. Bertarako gabeko hezkuntzari garrantzia eman nahi zaio, telematikaren bitartez.

**Zenbat titulazio eskainiko ditu Euskal Unibertsitateak? Zeintzuk diren erabaki duzue?**

Legeak eskatzen du unibertsitate bat zabaltzeko, gutxienez, zortzi titulazio eskaini behar direla. Horretatik hiru gradu ondokoak izan behar dira. Hori ere aztertzen ari gara. Dauden prestakuntzak eta hutsune gehiago non dauden aztertzen ari gara. Hainbat faktore kontuan izanda, erabaki beharko dira titulazio horiek zeintzuk diren. Oraindik erabaki barik daude. Denborarekin, baina, titulazio kopurua zabaltzen joatea espero dugu. Ez dakigu zenbateraino iritsi gaitezkeen.

**Amaitu aurretik, nori zuzenduta dago Euskal Unibertsitatea?**

Euskaldun guztiei. Esan bezala, euskara du oinarri eta Euskal Herriko lurralde guztietako ikasle guztiei zuzenduta dago. Orain Euskal Herrian daukagun unibertsitateen mapan bere lekua izan dezaten. Euskal Unibertsitatea ez da inoren ordezkoa izango, bere toki propioa izango du. Pausu inportantea da euskalgintzarako, hezkuntzarako eta baita Euskal Herriaren burujabetzarako. Poztekoa da esatea Euskal Unibertsitatea behar dugula eta egitera goazela, pausuz pausu. Euskal Unibertsitatearen proiektua hortxe dago eta bere garrantzia dauka.

## oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA
**> Babarrunaren landaketa, ikasgai**
Babarrunaren landaketaren gaineko ikastaroa antolatu du Itsasmendikoik, Tolosako Babarruna Elkartearekin batera. Edozeini zabalik dago, eta martxoaren lehen hamabostaldian izango da, lau egunetan. Izenematea 6 euro da, eta honako telefonoan egin behar da: 943 69 21 66.

DEBAGOIENA
**> Posta bidezko botoa eska daiteke batzokian**
Hauteskundeetan posta bidez bozkatu gura dutenek hala eskatzeko aukera dute batzokietan, otsailaren 28ra bitartean, astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 19:00etara.

OÑATI
**> Nerabeen heziketa afektibo-sexualaren gainean**
*Zein iritzi dute gure nerabeek haien heziketa afektibo-sexualaz?* delako hitzaldia egongo da bihar, martitzena, Txantxiku ikastolako areto nagusian, arratsaldeko sei eta erdietan.

DEBAGOIENA
**> Eskiatzera irteera egingo dute gaztelekukoek**
Valdezcarayko (Errioxa) eski pistetara joango dira Eskoriatza, Aretxabaleta eta Antzuolako gaztelekukoak otsailaren 23an, datorren zapatuan. Egun osoko irteera izango da. 20 euro da, norberak bere materiala eramanda; bestela, 40.

ESKORIATZA
**> Ugaltze aparatuaren gaineko berbaldia**
*Gure gorputzaren magia: ugaltze aparatua* delako hitzaldia egingo du M. Jose Pagaldaik etzi, eguaztena, kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE
**> Posta bidezko bozka, Alkartetxean**
Arrasateko EAk jakinarazi du gaur, astelehena, hasita, posta bidezko botoa eska daitekeela Alkartetxean, 18:30etik 20:30era. Argibideetarako, deitu 943 71 27 88 telefonora.

OÑATI
**> DBH ondorengokoaren inguruko hitzaldia**
*Zer egin dezaket DBH bukatu ondoren?* delako berbaldia egingo du Ana Sanz psikologoak etzi, eguaztena, Elkar Hezi ikastetxearen Santa Marinako eraikineko mediatekan, 18:30ean.

OÑATI
**> Hiperaktibitatearen gaineko hitzaldia**
*Seme-alaba hiperaktiboak. Zertan datza hiperaktibitateak? Zer da arreta gabezia?* delako hitzaldia egingo du Gema Climet neuro-psikologoak gaur, astelehena, Elkar Hezi ikastetxearen Arantzazuko Amako eraikinean, 18:30ean.

OÑATI
**> Ingurumen Astearen barruan, erakusketa**
Natur Eskolaren eskutik, Euskal Herriko narrasti eta anfibioak delako erakusketa egongo da gaur, astelehena, hasi eta martxoaren 2ra arte, kultura etxean. Egunero egongo da zabalik 18:30etik 20:30era. Aranzadi Zientzia Elkarteak gertatutako argazki erakusketa da.

BERGARA
**> Euskal dantzen ikastaroa antolatu dute, erromerietara eta San Martzialetara begira**
Jardun elkarteak eta Abarka dantza taldeak euskal dantzen ikastaroa antolatu dute. Otsaileko azken astean hasi eta maiatzera arte izango da, martitzenetan –erromeriako dantzak– eta eguenetan –fandangoa eta arin-arina–, 19:30ean. Izenematea zabalik dago Jardun elkartean; 943 76 36 61 da euren telefonoa.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> PCa erabiltzen irakatsiko dute**
*PCaren oinarrizko erabilerak* delako ikastaroa hasiko da gaur, astelehena, Bergarako Aula XXI dendan, 18:00etan, Kutxak antolatuta.

ARRASATE
**> Mediterraneoan itsas bidaia, Abaroakoentzat**
Abaroako bazkideek Mediterraneoan itsas bidaia egiteko aukera dute irailean. Bartzelona, Ibiza eta Montecarlo ikusiko dituzte, besteak beste. Izenematea martxoaren 6ra bitartean egin behar da, euren egoitzan.

ARRASATE
**> 58ko kintoek (1937an jaiotakoek), ospakizuna**
58ko kintoek batzarra egingo dute martxoaren 8an. Izena emateko, deitu Jose Riviereri (943 79 10 57) edo Pedro Fernandezi (943 79 02 48).

BERGARA
**> Hitanoaren gaineko ikastaroa hasiko da**
Bergaran berriz hitanoa indartzeko, ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak martxoaren 3tik 13ra, astelehenetik eguenera, 19:00-21:00. Juan Martin Elexpuruk emango du. Matrikula 27 euro da bazkideendako, eta 30, gainerakoendako. Izenematea, Jardunen (943 76 36 61 edo *gaztejardun@topagunea.com*).

## etxeko leihotik



**Edu Mendibil >**
ASTELEHENEKO GOIENKARIAko erredaktore burua

# Botoa lortzeko lehia gurean eta nazioartean

Zapaterok eta Rajoyk borrokan jarraitzen dute hauteskunde kanpainaren atarian, botoak elkarri kendu nahian, eta bitartean bakea lortzetik edo *euskal gatazka* deiturikoaren amaieragatik gero eta urrunago gurean. Nolabaiteko kontsolamendua bilatu nahirik, alderdi abertzaleak Kosovoren ereduari begira jarri dira orain. Lehen Irlanda, orain Kosovo, baina abiadura gutxiko trena gurea. Geldi berriro. Kosovok independentziaren alde egin du. Hemen, aldiz, burujabetasuna eta independentzia moduko hitzak ez dira atseginak zenbaitendako.

Kosovokoak ez dira botoekin zerikusia duten nazioarteko albiste bakarrak. AEBn, ustez errepublikanoen hautagaia izango den McCain, hauteskundeak irabaziz gero, Guantanamo ixteko gertu. Bien bitartean, Afganistanen, Bagramen, Guantanamo berri bat omen dute estatu batuarrek. Etxean armekin badituzte arazoak. Azken sarraskia, Illinoisen. Eta Obama, armak izateko eskubidearen aldekoa.

**"Lehen Irlanda, orain Kosovo, baina abiadura gutxiko trena gurea"**

Hauteskunde eguna gaur Pakistanen. Kanpainaren amaieran, 37 hildako han. Zalantza ugari bozketaren baliagarritasunaz. Munduari buelta hasierako puntura itzultzeko.

**> Agorrosin. Kirolgune dotorea dugu Bergaran 2006ko irailetik. Aurten, aste bukaerako ordutegia murriztu dute. Jendeak kirola egiteko denbora gehiago duenean, orduak gutxitu? Ez dakit ba...**

**> Musika Arrasaten. Uarkape beteta Des-Kontrol eta abarrekin eta Amaian oso jende gutxi Kassin +2-ren kontzertuan. Eskaintza interesgarria prezio onean, baina argi dago asmatzea ez dela erraza.**

## debagoiendarrak kanpoan

**Mikel Aranburu** > Oñati

# "Bartzelonako klima zoragarria eta eskaintza kulturala oso gustuko ditut"

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

**Bere herrian, Oñatin, irratiko kolaboratzaile eta hainbat auzotako jaietako laguntzaile izana da Mikel Aranburu, baina Debagoienean ere aurpegi ezaguna da, GOITBn aurkezle lanak ere egin ditu eta. Orain, baina, Bartzelonan bizi da, banketxe baten lanean.**

**Badaroazu dagoeneko denboratxoa Bartzelonan, ezta?**
Bai; urte eta erdi daroat hemen bizi izaten. Santa Coloma de Gramanet herrian egiten dut lan, baina hiriburuan bizi naiz. Hasieran, pixka bat kosta egin zitzaidan ohitzea, baina orain integratuta sentitzen naiz.

**Bartzelonan, non bizi zara?**
Hiriburuko Auzo Gotikoan bizi naiz; hemengoek dioten moduan, leku onenean. Metroan joaten naiz lanera Santa Colomara; hiriburutik hogei minutura dago. Santa Coloman, Banco Guipuzcoanoko bulegoa daukagu, eta hura aurrera eramaten egiten dut lan.

**Bartzelonan bizi izatetik zer duzu gustukoen?**
Klima; zoragarria da, benetan; beti daukagu eguraldi ona! Plaṅak-eta egiteko paregabea da.

Horrez gain, Pirinio aldeko herrixkak ezagutzen ibili naiz, eta oso politak dira, batez ere, kostaldean daudenak.

Jakina, Bartzelona bezalako hiri batek eskaintzen dituen kultura aukerak ere azpimarratuko ditut. Beti dago zer egina: zinema, antzerkia, kontzertuak... Oso bizitza kultural aberatsa dago.



GOIENKARIA

**Oñatiarra Bartzelonan**
Banketxe baten bulegoa kudeatzen dihardu Mikel Aranburuk Bartzelona ondoko hiri baten.

**Bartzelonan bizi diren beste euskaldun edo oñatiar batzuekin egoten zara?**
Denetarik; beste euskaldun batzuk ere ezagutzen ditut, eta lagun katalanak ere egin ditut. Elkarrekin irteten gara, noizbehinka parrandaren bat egin ere bai...

**Katalanez ikasi duzu?**
Hor nabil. Poliki eta hizkuntza jasoan berba egiten dutenean, ulertzen dut; TV3 ulertzen dut, adibidez. Agurrak-eta katalanez egiten saiatzen naiz.

**Oñati faltan igartzen duzu?**
Bai horixe; bizi izateko, Euskal Herria bezalakorik ez dago. Denboraldi baterako, Bartzelona oso ondo dago, baina Oñatira bueltatu gura dut.

Hala ere, sarri joaten naiz bisitan; hamabostean behin edo hilean behin; Oñati ez dut alde batera utzita, ez. Euskal Herriko beste jai batzuetara ere joaten naiz; adibidez, iaz, San Sebastianetara joan nintzen.

**Bartzelonara joaten den debagoiendar bati zer egitea edo ikustea gomendatuko zenioke?**
Bartzelonak duen eskaintza kulturalaz gozatzeko gomendatuko nioke. Bestetik, hiriburuak ikusteko leku polit asko ditu; benetan hiri ikusgarria da, eta, jende aldetik, multikulturala.

Lehen esan dudan bezala, gainera, eguraldia hain ona denez, plana egiteko arazorik ez dago; esango nioke disfrutatzeko asmoarekin etor dadila.

**kale inkesta**

# Mendira joaten zarenean, Debagoienean geratzen zara edo kanpora joaten zara?



**Jose Luis Dorronsoro**
Langilea
Bergara

Toki guztietatik ibiltzen gara. Hori bai, beti joaten gara mahaia dagoen toki batera, hamarretakoa dagoen tokira. Urbiara eta Ernio aldera askotan joaten gara, baita gertuago ere: Mekolalde eta San Prudentzio aldera.



**Malu Irizar**
Langilea
Bergara

Mendira joaten naiz batez ere perretxiko garaian. Asko disfrutatzen dut. Batzuetan Urbia ingurutik ibiltzen gara eta beste batzutan, berriz, Arabarantz joaten gara, Elgea alderantz. Pirinioetara ere mugitzen gara.



**Mikele Aldaz**
Langilea
Bergara

Toki guztietatik ibiltzen gara normalean. Kanpora joaten garenean, askotan, kostaldera goaz. Oñatira eta Urbiara udaberri partean joaten gara gehiago. Mendi politak dauzkagu eta aprobetxatu behar dira.



**Jon Valle**
Langilea
Antzuola

Astean hemendik ibiltzen naiz eta aste bukaeretan kanpotik. Bailaratik Urbiara eta Udalatxera goaz. Orain umeak dauzkagu eta Euskal Herritik ibiltzen saiatzen gara. Aste Santuan eta udan beti kanpora goaz.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Mojategi futbol zelaiko eserlekuak oso zikinak daude**
Aste bukaeratan Mojategira futbola ikustera joaten den irakurle bat deitu digu bere haserrea adierazteko. "Aspaldian ez du euririk egin, baina Mojategiko eserlekuak oso zikinak daude", esan digu. "Zapatuan Mondra eta Trintxerperen arteko partidua ikustera joan nintzen eta eseri aurretik paperezko lau zapi erabili nituen eserlekua garbitzeko", azaldu digu. Bere hitzetan "astero ez bada, partiduak daudenean eserlekuak garbitu egin beharko lituzkete".

ARRASATE
**> Arrasateko saihesbidetik San Andreserako irteeran, zuloak**
Irakurle batek deitu digu Arrasateko saihesbidetik San Andres auzo aldera dagoen irteerak dituen zuloei inguruko kexa adierazteko. "Unibertsitate aldera joaten naizen bakoitzeko errepidean zulo handiak daudela nabaritzen dut. Egunen batean ezustekoren bat egongo da toki horretan", esan digu. "Konponketa txiki bat egitea ez legoke gaizki".

BERGARA
**> Irizar jauregia gauez argiztatuta**
Bergarako Irizar kaleko bizilagun batek galdera bidez kexu bat helarazi digu. "Azken egunotan konturatu naiz Irizar Jauregia gauez argiztatu egiten dutela. Nork hartu du erabaki hori?Ea zergatik?".

**usteak uste**

**Mirian Biteri**

# Aurtengo uda garaia aprobetxatu!

Azkenaldian udan gaudela ematen du. Gauean hotza egiten badu ere, eguzki izpiak irtetean, azkar epeltzen da Debagoiena. Batzuk gustura gaude eguraldi horrekin, jakin badakigu ere orain ez duela horrelakorik egin behar. Mendira joateko edo beste barik, kalera irteteko gogoa ematen du horrek.

Askorendako udaberrian edo udan egiten diren irteerak dira horiek. Aurten garai hori aurreratu da, zer egingo diogu ba. Aprobetxatu behar dugu. Izan ere, hemen inoiz ez dugu jakiten-eta hurrengo egunean elurra egin edo eguzkia irtengo den. Neguan eguzkia larregi ikusteari susmoa hartzen diot nik. Uztailean eta abuztuan zerua ez ote den erabat lainotuta egongo. Beraz, ahal den guztia aprobetxatu!

**zorroztailea**



**Juan Luis Azkarate**

# Grebaren biharamunean

"Egia esateko, gizarte honi bost axola atxiloketak eta ilegalizazioak, bere errealitatetik at dagoen gertaera bat bezala bizitzen ditu guzti hauek. Bere kezkak oso bestelakoak dira: nola hile bukaerara heldu, autobusa garaiz hartu, bere futbol-taldea igandean irabaz dezala edo barazkien prezioagatik haserretu."

**Pello Salaburu**
El Diario Vasco > 2008-02-15


El espejismo de la izquierda abertzale
LÍMITE
Serbia, casi todo por hacer

Ezker Abertzaleko guardiako bozeramaileak meza esango, gura badu, baina guztiok jakin badakigu eguneko greba orokorra porrot itzela izan zela. Nahikoa da biharamuneko *Berria* egunkariaren titularra irakurri: "Irakaskuntzan eta merkataritzan izan du jarraipen handiena greba egun orokorrak", egiaz jabetzeko. Irakaskuntzan eta merkataritzan? Nahikoa. Besterik ez esan.

Ni, greba egunean, goizean Bilbon izan nintzen, eta han normaltasuna %100ekoa izan zen; inortxok ezingo zuen imajinatu greba orokorraren deialdirik zegoenik. Beste herrialde batean ote nengoen? Debagoienean bai, egia da enpresa garrantzitsu batzuk itxi egin zutela, baina inondik inora duela urte gutxi berdinekin greba honek lortuko zukeen oihartzuna. Beste askok, ordea, pertsiana jaitsita egin zuten lan; eta, bakoitza bere etxean, ostegunean telelanari ekin zionik ere ezagutzen dut.

Batzuk pikareskari heldu behar, derrigorrez; baina beste batzuk, ziurrenik ahulenak, ez daukate greba egiteaz beste erremediorik, *Berria* eta beste egunkari batzuei titular erdi itxuroso bat emateko, bederen. Erraza, oso erraza baita taberna eta denda txiki guztiak itxiaraztea eta, ondorioz, erosle guztiak bidaltzea egun osoz zabalik egon zen Maxi Eroskira, Arrasaten gertatu zen bezalaxe.

**"Bilbon, greba egunean, normaltasuna %100ekoa izan zen"**

**"ez da egongo autokritikarik (tamalez, egin beharko luketenak kartzelan daudelako**

Ohi denez, ez da egongo autokritikarik (tamalez, egin beharko luketenak kartzelan daudelako; baina libre egonda, ere ez) betikoek eutsiko diote ikurrinaren mastari, baina ezker abertzalea aspalditik ameskeria luze batean bizi da, Pello Salaburuk bere artikuluan esan bezala.

Eta, ozen esango dut, arrazoiak ez ziren falta, ez, eguenean greba orokorra egiteko. ANVren ilegalizazioa eta atxiloketak orain, lehen 18/98 auzia, *Egin* eta *Egunkariaren* auziak… Estatuaren gehiegikeriak bata bestearen atzetik. Lurra erreaaren politika nonahi. Zergatik, ordea, gehiengoaren itxurazko axolagabetasun hau?

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Mirian Biteri, Arritxu Barruso **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak





**> ARRASATE**
Barrenatxo lekuz aldatzeak 200.000 euro inguruko aurrekontua izan dezake **> 10**




**> BERGARA**
Amodiozko gutunen lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo dute gaur, kultura etxean **> 11**



**> ESKORIATZA**
Ustezko irregulartasunen ikerketa batzordeak San Juan kaleko lanak aztertuko ditu gaur **> 13**

**BERGARA** > MERKATU TXIKIA ZAPATUERO KATABIAN

# Merkatu txikiak: Debagoienean herriz herri dabilen eskaintza ibiltaria

**BERGARA** Katabiara dozena bat saltzaile etortzen dira zapatuero

**KOKALEKUA** Saltzaile ibiltariak ez dira gustura oraingo kokalekuarekin

**ESKAINTZA** Prezioa eta konfiantza nabarmentzen dituzte dendariek. Era askotako produktuak salgai



MERKATU TXIKIA Zapatuero jartzen dute merkatu txikia Bergaran, Katabian. Irudian, erosleak postuetako eskaintza aztertzen, joan den zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Alkandorak 10 eurotan, txaketak 20 eta 120 eurotan, guardasolak 5 eurotan, hiru galtza pare 3 euroren truke, kamisoiak 8 eurotan, boxer galtzontziloak 2 eurotan eta horrelako beste hainbat eskaintza topatzen dira zapatuero Bergaran, Katabiako merkatu txikian, Santa Marina parrokiaren ondoan. Zapatu goizean 11 postu zeuden han. Goizez egoten da zabalik merkatu txikia, 08:30etik 13:30era. Hotz egin zuen zapatuan; eguerdirako epeldu zuen, baina Patxi Alvarezek salgai zituen plastikozko termometroek 25ºC-ko tenperatura markatu arren, ez zuen horrenbeste bero egiten. Eguzkitan ziren Alvarezen termometroak: "13-14 gradu izango dugu orain", esan zigun.

**SALTZAILE BETERANOAK**

Patxi Alvarez bilbotarrak 25 urte inguru darama astero Bergarara etortzen. Sukalderako tresneak saltzen ditu herriz herri. Arrasateko merkatura ere etortzen da ostiraletan. Eibarrera edo Gernikara joaten da astean zehar. Bergaran garai hobeak ezagutu dituela diosku: "Gaur egun saltzaile gutxi etortzen gara Bergarako azokara; lehen askoz ere gehiago egoten ginen eta horrek jende gehiago erakartzen zuen. Gainera, ez gaude tokirik onenean. Lehen Zurraderon hobeto geunden eta jende gehiago ibiltzen zen orain baino. Erosleen beherakada nabaritu dugu azken hilabeteotan".

Eguerdiko ordu batak pasatxo, azken erosleak ari dira postuetako eskaintzak aztertzen. Bitartean, saltzaileak euren produktuak jasotzen hasiak dira. Jose Antonio Iglesias zapatagile eibartarra harro dago txinatar produkturik saltzen ez duen bakarretakoa delako. Gasteizen zapata denda *finkoa* duen arren, hara eta hona ibiltzea gustuko du: "Azken urteotan ez dute jakin izan kaleko dendarioi behar besteko arreta eskaintzen, eta leku batetik bestera ibili gaitutze Bergaran. Kaleko giroa jaisten doala eta berriro akordatzen dira gurekin… Beste herri batzutan postu gehiago dago, eta giro handiagoa".

## Bergarako merkatu txikia: kokaleku hobea eskatzen diote saltzaileek Udalari

Debagoieneko hainbat herritan merkatu txikia izaten dute astean behin: ostiraletan Eskoriatzan eta Arrasaten; zapatuetan Oñatin eta Bergaran eta astelehenetan Aretxabaletan eta Elgetan. Bergaran hainbat lekutan jarri dute merkatu txikia azken urteotan: San Martin plazan, Zurraderon eta Simon Arrietan. Oraingo Katabiako kokalekuarekin ez daude oso pozik. Eskaintza eskasa dela eta gero eta jende gutxiago hurbiltzen dela esaten dute. Gainera, Oxirondo azokako SuperBM supermerkatua itxi zutenetik, egoerak okerrera egin du. Gaur egun dozena bat postu jartzen dituzte astero Katabian. Dendariek metro lineal bakoitzeko ordaintzen diote Udalari. Esate baterako, 10 metroko postu bategatik, hiruhilabeteko erreziboa 291,20 eurokoa da dendarientzat. Eibarren edo Arrasaten 50 postu inguru egoten dira astero. Bergaran, aldiz, dozena bat. Dendariek merkatua toki hobean kokatzea eskatzen diote Udalari.



Argazkian, Patxi Alvarez saltzaile bilbotarra. Urtetan etorri izan da Bergarara. J.A.

**ARRASATE** > ONDAREAK

# Barrenatxo lekuz aldatzeak 200.000 bat euro balio dezake

Uribarriko auzotarrek gura dute Barrenatxo errota eta Mendiazpiko zubia Garaia Berrikuntza Guneko berdegune batean berritzea



**BARRENATXO ERROTA** Atzeko aldean Polmetasaren eraikin berria eta aurrean errepidea du. JOSETXO ARANTZABAL

**M.B.** > ARRASATE
Barrenatxo errota tokiz aldatzeak eta Garaia Berrikuntza Gunean berriro eraikitzeak 180.000 eta 210.000 euro artean balio dezake. Horixe da Uribarriko auzo batzordeak aditzera eman duena. Proiektu hori egiteak zenbat balio dezakeen jakin gura zuen batzordeak eta horretarako aparejadore bat kontratatu zuen. Dagoeneko jaso dute horren emaitza.

Jakina denez, Barrenatxo errota tokiz aldatu behar dute. Gaur egun, Garagartzako errepide bazterrean dago eta Diputazioak ez du onartu berezko tokian uztea, errotaren atea errepide ondoan dagoelako eta beraz, irisgarritasun arauak ez direlako betetzen. Horrez gain, orain dagoen lekuan oinezkoendako babesik ez dagoela eta hori bermatzeko aukerarik ez dagoela ere arrazoitu du Diputazioak. Polmetasako eraikin berria egiten dabilen San Andres Berri promotoreak dauka konpontze lanen ardura, Udalak hala aginduta.

Uribarriko auzotarrek irtenbidea aurkitu diote horri. Barrenatxo Garaiara eramatea nahi dute, Gautxori baserria zenaren atzeko berdegune batera.

**MENDIAZPIKO ZUBIA**
Barrenatxo errota, bada, ez litzateke bakarrik egongo han. Olandixoko tunelaren eraikuntza lanen eraginez, Uribarriko beste ondare arkitektoniko bat, Mendiazpiko zubia, bota egin behar ko dute.

Uribarrikoek proposatu dute esandako zubia Barrenatxo ondoan berreraikitzea. Egitasmo horren aurrekontua zenbatekoa litzatekeen ez dakite oraindik.



**MENDIAZPIKO ZUBIA** XVIII. mendekoa da Mendiazpiko zubia. JOSETXO ARANTZABAL



GOIENKARIA

## Nagusienei ondo irabazitako omenaldia, Uribarrin

80 urtetik gorako bazkideak omendu zituzten Uribarriko zaharren egoitzan, joan den eguenean. Bazkaria eta oparitxo bana jaso zuten ekitaldian parte hartu zuten 31 lagunek. “15 gizonezko eta 16 andre etorri ziren. Dena dela, Uribarriko egoitzan 80 urtetik gorako 140 bazkide ditugu; 31 etorri ziren, izan ere adin horretan...” kontatu du Juanito Osinagak, Uribarriko zaharren egoitzako presidenteak. Hark gaineratutakoaren arabera, edadetu horien artean, nagusienei opari berezia eman zieten: 91 urteko Faustina Barquerori landare bat eta 87 urteko Serafin Atxari bizarra kentzeko gailuak. Egoitzako bertako ordezkariez gainera, Ander Rodriguez, Gizarte Ongizateko zinegotziak ere parte hartu zuen ekimenean. Guztiak ere “gustura eta giro politean ibili ginen, batez ere, bazkal osteko tertulian sortu zen giro polita”, azaldu du Juanito Osinagak.

**POLITIKA** > ARALARREN OHARRA

## Azken atxilotuak askatzeko eskatu du Aralarrek

Aralarrek gaitzetsi egin ditu atxiloketak eta oro har, ilegalizazio prozesuak

**U.M.**> ARRASATE
Aralarko Arrasateko komiteak Batasunako 14 kideren atxiloketa "ikaragarrikeriatzat" jo du. Aralarrek azpimarratu du Estatuaren politika egiteko modu hori "zikina dela eta gerra jarrera hori "deitoratu eta salatu" egin beharrean daudela. Nabarmendu du "gizartearen gehiengoak behin eta berriz agertu" duela "nekea eta kontrako jarrera ilegalizazio eta errepresio dinamika" horiekiko eta dinamika horrek "baketik erabat urruntzen" gaituela.

Hori horrela, besteak beste, bide politikoa eta "balio demokratikoen aldarria" defendatu du bakea lortzeko eta "ezinbestekoa" ikusten du "Auzitegi Nazionala eta salbuespeneko legedia behin betirako indargabetzea, bereziki alderdien legea".

> UDALA

### Arrasaten bizi diren etorkinen gaineko diagnostikoa egiteko adjudikazioa aztertuko dute gaur

Astelehenero moduan, gaur udal gobernuak batzarra egingo du eta aztertuko dituen gaien artean, Arrasateko etorkinen gainekoa da bat. Hain justu ere, gure udalerrian bizi diren etorkinei buruzko diagnostikoa egitea adjudikatzeko prozedurari ekin edo ez erabakiko dute, besteak beste, gaurko batzarrean.




**SARI EMATEA** Kultura etxeko erakusketa aretoan banatuko dituzte sariak. Irudian, iazko irabazleak. GOIENKARIA

**EUSKARA** > AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA

# Gaur banatuko dituzte amodiozko gutunen sariak

## Otsailaren 14ko grebarekin bat egin zuten eta hori da sari ematea atzeratzeko arrazoia

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Gaur, astelehena, banatuko dituzte Jarduneko kideek amodiozko gutunen lehiaketako sariak. Ohi bezala otsailaren 14an, San Valentin eguna, banatzekoak ziren baina greba orokorrarekin bat egin zuten Jarduneko langileek eta horrek ekitaldia atzeratzea ekarri du.

**EKITALDIA, KULTURA ETXEAN**

Ekitaldia 19:00etan izango da, kultura etxeko erakusketa aretoan, eta han batuko dira lehiaketako irabazleak. Hala, hantxe izango dira lehen saritu Alaitz Sarasola ordiziarra; bigarren saria eskuratu duen Karlos Aizpurua oiartzuarra; Iraitz Salegi, Bergarako gutun onenaren saria jaso duen gaztea; Josu Gonzalez 26 urtetik beherakoendako saria jaso duen bergararra eta Ibon Segura eskoriatzarra, SMS sariaren irabazlea.

Sariak banatuko dituzte Oier Bolibar Jarduneko presidenteak, Maitane Montiel eta Irati Alberdi epaimahai gazteko kideek eta Nerea Mendizabal eta Itsaso Mendizabal Jarduneko teknikariek.

Ekitaldia urterokoaren antzekoa izango da: irabazleetako bakoitzak bere gutuna irakurriko du eta gero saria jasoko dute. Ekitaldiari amaiera emateko, luntxa egongo da bertaratzen diren guztiendako.

**KOPURUAK BEHERA EGIN DU**

Aurten 38 gutun jaso dituzte, Gipuzkoatik gehienak; jasotako SMS mezuak, berriz, 14 izan dira. Jarduneko ordezkariek azaldu bezala, azkeneko bi urteetan behera egin du jasotzen diren gutunen kopuruak, ez aldiz, kalitateak.

> NAGUSIAK

### San Joxepek Donostiara irteera antolatu du eta besteak beste, Aquariuma ikusiko dute

San Joxepe erretiratuen elkarteak Donostiara irteera antolatu du otsailaren 28rako. Bidaia autobusean egingo dute eta besteak beste ikusiko dituzte: Aquariuma eta Alde zaharra. Bazkaria egingo dute sagardotegi baten. Irteera dago aurreikusita 09:30ean, autobus geltokitik.

> ZERBITZUAK

### Labegaraietako kiroldegiko taberna ustiatzeko eta instalazioak garbitzeko deialdia egin dute

Kontratuaren iraupena urte batekoa izango da, eta urtero luzatzeko aukerarekin. Nahi duten guztiak aurkeztu ahal izango dira lizitazio librera, eta 400 euroko behin behineko fidantza ezartzea derrigorrezko baldintza izango da. Proposamenak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira hil bukaera aurretik.

> IPUIN-KONTAKIZUNA

### Miren Camison ipuin-kontalariak emanaldia egingo du eguenean, Aroztegi aretoan

*Emankortasunaren mundu magikoak, erotikoak eta tragikoak* ipuin sorta egingo du Miren Camisonek hilaren 21ean, 19:00etan, Aroztegi aretoan egingo duen emanaldian. Munduko istorio motzak eta ipuinak kontatuko ditu Camisonek; guztiak emankortasunaren gainekoak.

> HAUTESKUNDEAK

### Posta bidez bozkatzeko bulegoa jarri du EAJ alderdiak eta dagoeneko martxan dago

Martxoaren 9ko hauteskundeetan posta bidez bozkatzeko bulegoa jarri ditu EAJ alderdiak Batzokian, eta modu horretan bozkatu nahi dutenei laguntzeko dago. Aste barruan honako ordutegia dauka: 11:30-13:00 eta 19:00-21:00. Gogoratu postaz bozkatzeko azken eguna otsailaren 28a dela.

> EUSKARA

### Gurasoendako aholku liburuxka eta kantu eta jolasen DVDa banatu du Udalak ikastetxeetan

Umeen hizkuntza-ikasketak eta familia transmisioak duten garrantzia kontuan hartuta banatuko du Udaleko Euskara Zerbitzuak sorta hori. Herriko hiru ikastetxeetako lau urteko umeen artean banatuko dituzte aholku liburuxka eta kantu eta jolasen DVDa.

## Mendekotasuna dutenekin lan egiteko ikastaroa

Arrasateko Iturbide zaharren egoitzan lan egiten dute 32 laguntzailek –irudian taldeetako bat– KutxaZabal Deba-Uned barruko ikastaroa bukatu berri dute. Ikastaroaren gaia izan da: Trebetasunak eta gaitasunak edadeko pertsonekin lan egiteko. Esperientzia hori eta gero, KutxaZabal Deba-Uned pentsatzen ari da mendekotasuna duten pertsonekin lan egiten dutenei –zaharren egoitzak, eguneko zentroak...– ikastaro espezialduak ematea.



GOIENKARIA

**LANAK** > BOST HILABETEKO EPEA DUTE

# Aikia enpresak egingo ditu Ludoteka prestatzeko lanak

Lanak egiteko bost hilabeteko epea aurreikusten du Biark Arkitektura bulegoak

Bereziki, hiru eta sei urte arteko haurrendako zerbitzua emango da bertan

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Lizaur kalean egokituko den ludotekak urrats berria bete du, lanak esleitu dira-eta. Urtarrileko osoko bilkurak erabakitakoaren arabera ludotekako lokala prestatzeko lanak Aikia enpresak egingo ditu.

Gainera, badirudi lanak otsaila bukaera aldera hasiko direla. Arrasateko Biark Arkitektura bulegoak idatzitako proiektuan lanak egiteko bost hilabeteko epea zehazten zen. Hortaz, atzerapenik ez badago, ludoteka udarako gertu egongo da.

Batez ere, hiru eta sei urte arteko haurrendako zerbitzua izango da, baina 6 eta 11 urte arteko neska-mutikoendako ekintzak antolatuko dira bertatik, herrian dauden beste azpiegitura batzuk erabiliz.




**LUDOTEKA** Lizaur kaleko 5. zenbakian egokituko dute lokala. JOSETXO ARANTZABAL

**BI GUNE EZBERDIN**

Lizaur kaleko 5 zenbakiko beheko solairuan egokituko dute ludoteka. Guztira, 122,65 metro koadro ditu erabilgarri.Lokalak bi gune ezberdin edukiko ditu: alde batetik irakur-gela (35,61 metro koadro) eta beste alde batetik, jolas-lekua (55,59 metro koadro). Ludotekako bi espazio nagusiak ondo bereiztuta egongo dira erabiliko den materialari esker. Era berean, lokalaren barruko orma eta sabai guztiak termikoki eta akustikoki isolatuta egongo dira. Gainera, harrera gunea, komunak eta biltegi txiki bat ere egokituko dira lokalean.

**KOLOREDUN KRISTALAK**

Kanpoaldetik ludotekak tamaina ezberdineko koloredun kristalak edukiko ditu eta bi ate nagusi. Hortaz, egun lokalak dituen bi ateak mantendu egingo dira. Hala, barruko bi gune nagusiek, irakur-gelak eta jolas-gelak sarrera bana izango dute eta modu autonomoan funtzionatu ahal izango dute. Bestalde, irrisgarritasun arauetara egokitzeko, ate horietako bat kaleko kota berean jarriko da.

## Aparkatzeko txartela hartu behar da, baina ordaindu barik

Kalegoienako eta kiroldegiko lurrazpiko aparkalekuetan oraindik ez da autoa uzteagatik ezer ordaindu behar. Arazoak daude kobrantza egiten duten makinekin. Hortaz, momentuz doaneko parkinak dira.

Edozelan ere, azken asteotan, proba modura, lurrazpiko aparkalekuetarako sarrerako barrera jaitsita egoten da. Hala, derrigorrean txartela hartu behar da barrera igotzeko eta aparkalekura sartzeko. Baina, irteeran ez da ezer ordaindu behar.



MIREIA BIKUÑA

> ERAKUSKETA

### Narrasti eta anfibioen inguruko erakusketa

Natur Eskolak antolatuta Ingurumen Astea hasiko da gaur. Hasiera emateko erakusketa zabalduko dute. Euskal Herriko narrasti eta anfibioak dira protagonista kultura etxean zabalduko den erakusketan.Gaurtik aurrera bisitatu ahal izango da, martxoaren 21era arte, arratsaldez, 18:30etik 20:30era.

Bestalde, egueneko zine klub tartea natur astearen barruan sartzen da. Hortaz, Jia Zhang Ke zuzendariak egindako *Naturaleza muerta* pelikula eskainiko da, 20:00etan.

Ingurumen asteko hitzaldiak otsailaren 25etik 29ra iragartzen dira Natur Eskolan bertan.

> HITZALDIA

### Hiperaktibitatearen inguruko hitzaldia gaur arratsaldean

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta hiperaktibismoaren inguruko hitzaldia iragartzen da gaur arratsalderako.

Seme-alaba hiperaktiboen inguruko zehaztasunak emango ditu Gema Climent neuro-psikologoak; besteak beste, hiperaktibismoa zer den azalduko du eta zeintzuk diren sintomak. Era berean, hitzaldira doazen lagunen galderak erantzungo ditu.

Gaurko solasaldia Elkar Hezi ikastetxearen Arantzazuko Ama kaleko eraikinean izango da, 18:30ean hasita. Elkar Hezi ikastetxeak antolatutako hitzaldia bada ere, interesa duten herritar guztiondako irekia dela gogorarazi nahi izan dute antolatzaileek.

> IPUIN KONTAKETA

### Gonbidapenak aurretik hartu behar dira liburutegian

Otsailaren 26rako eta 28rako haur liburutegian iragartzen diren ipuin kontaketetarako gonbidapenak aldez aurretik jaso behar dira haur liburutegian bertan. Ipuin kontaketa saioa bost eta bederatzi urteko arteko neska-mutikoendako da.

Gorringo taldearen eskutik *1.728 animali kontu* izeneko ipuin kontaketa saioak iragartzen dira otsailaren 26rako eta 28rako haur liburutegian. Hain zuzen, bi esploratzailek uharte bakarti batera egiten duten istorioa kontatzen da. Han, 1.728 animalia topatuko dituzte.

Datorren asteko ipuin kontaketa saioak 18:00etan hasiko dira.

**ESKORIATZA** > UDALA

# Ustezko irregulartasunen ikerketa batzordeak aurrera dihardu

## Otsailaren 11n Dorleta auzoko lanak aztertu zituzten eta gaur San Juan kalekoak

## Ikerketa batzordearen ondorioak hauteskundeen ostean jakinaraziko dira

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA
Ustezko kontratazio irregulartasunak aztertzeko ikerketarako batzordeak lanean dihardu. Hilaren 4an, otsailean zehar lau bilkura egingo zirela zehaztu zuten batzarkideek, baita batzordean azalpenak eman beharko dituzten pertsonen izenak jarri ziren. Otsailaren 11n lehenengoa egin zen eta gaur arratsaldean bigarrenari ekingo diote.

Hilaren 11ko batzarrean, Dorleta auzoko urbanizazio lanetaz jardun zuten. Fonorte enpresa izan zen obra horretaz arduratu zena. Proiektua egiteko, onartzeko eta esleitzeko espedientea aztertu zituzten batzarkideek eta horiek, legeak dionaren arabera tramitatu zirela ondorioztatu zen.

Jarraian, obren ziurtagiriak eta bereziki, obren likidazioarena aztertu zituzten. Obrak 1.731.860 eurotan adjudikatu zirela, Fonortek 2.530.475 euro eskatzen zituela eta Injelanek, obra zuzendariak, egindako azkeneko obra ziurtagiriaren arabera, obrak 1.897.253 eurotan likidatu zirela ikusi zuten. Adjudikazioaren eta likidazioaren artean dagoen desbiderapena azpimarratu zuten eta horregatik, Injelan enpresarekin egotea adostu zuten, jakiteko non gauzatu diren desbiderapena eta zer irizpide izan zituen Fonortek eskatzen zuena eskatzeko.



**DORLETA** Otsailaren 11n, Dorleta auzoko urbanizazio lanak aztertu zituzten batzordean. IKER BARANDIARAN

### SAN JUAN KALEA

Gaur bilduko da berriro ikerketarako batzordea. San Juan kaleko obrak aztertuko dira horretan. Otsailaren 25ean, dagoeneko deituta dauden pertsonen azalpenak entzungo dira: Juan Carlos Bengoa alkate ohia, Josu Ezkurdia hirigintza zinegotzi ohia eta Injelan, Fonorte eta Frixi enpresak. Horiek entzun ostean, ondorioak iritsiko dira. Horiek hauteskundeak pasa ostean jakinaraziko direla esan du batzordeko presidente Iñaki Pierruguesek.

**GAZTERIA**

# Gaztelekuko gurasoek bilera dute bihar

## Gaztelekuaren funtzionamendua eta aurtengo plangintza ezagutuko dute

**M.B.** > ESKORIATZA
Udaleko gazteria zerbitzuak herriko Gaztelekua erabiltzen duten gazteen gurasoak bilera batera deitu ditu biharko. Bilera horrek bi asmo ditu: Gaztelekuaren egunoroko funtzionamendua erakutsi eta urte honetarako aurreikusita dagoen plangintza eta egingo diren ekintzen berri ematea. Gurasoei bileran parte hartzeko gonbita egin dei Gazteria sailak.

Plangintzari dagokionez, aste bukaera honetarako antolatu den eski irteeraz hitz egingo dute Gaztelekuaren arduradunek. Datorren zapaturako egin dute hitzordua, Valdezcarayra joango dira. Irteera horretan parte hartzeko izena eman daiteke oraindik.

### BERMEORA IRTEERA

Horrez gain, Pazkoako astean, hiru eguneko irteera egingo dute gazteek Bermeora. Aterpetxe batera joango dira martxoaren 28tik 30era. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago.

**ARETXABALETA** > OBRAK

# Hilaren amaieran hasiko dituzte Herriko Plazako lanak

## Mitarte kalea berritzeko proiektua ere datozen egunotan iritsiko da Udalera; Santa Kurtz kalekoa, martxoan

**M.B.** > ARETXABALETA
Herriko Plazako hornidura eta saneamenduak berritzeko eta horren irudia birmoldatzeko lanak hilaren bukaeran hasiko direla esan du Udalak. Horrez gain, Mitarte eta Santa Kurtz kaleko Hornidura eta Saneamendu Plan Bereziak hilaren amaierarako eta martxorako, hurrenez hurren, prest egon daitezkeela uste du Udalak. Donostiako Asmatu enpresak du horiek idaztearen ardura.

Jakina denez, proiektu horiek lur-azpiko azpiegitura guztien berrikuntza aurreikusten dute, baina baita plazaren eta kaleen urbanizazioaren diseinuaren birmoldaketa ere.

### ALDAKETA ASKO

Herriko Plazak, esaterako, irudi berria izango du lanen ostean. Besteak beste, plaza barrenean dagoen harrizko pergola bota egingo dute eta arrapala hobeak jarriko dituzte gurpildun aulkian dabiltzanek zein ume aulkiek samurrago igotzeko.

Bestalde, Mitarte eta Santa Kurtz kaleetan espaloiak handituko dira, lorategien eta hiri tresneriaren berritu dira eta argiztapenaren indartuko da.

Mitarte eta Santa Kurtzeko proiektuak idatzita izan ostean eta aurtengo udal aurrekontuak onartuta egon ostean, lan horien lehiaketak etorriko direla azaldu du Hirigintza teknikari Jose Mari Segoviak.

Bi kale horietako lanak ere aurten hasiko dira, baina oraindik ez dago epe zehatzik. Mitarte kaleko lanak lehenago hasiko direla esan du Segoviak.

Erdiguneko berrikuntza faseka egingo dela gogora ekarri du. Hala, hilaren amaieran Herriko Plazako obrei ekingo diote. Ondoren, Mitarte kaleko berrikuntza lanak etorriko dira."Azkenik, Santa Kurtz dago. Apurka joan behar gara guzti hori egiten", dio.

Lan guztiak datorren urterako amaituta egotea espero du Udalak. Herriko Plazakoak eta Mitarte kalekoak aurten bukatzea aurreikusita dago. Santa Kurtz kalekoak, berriz, datorren urtera arte luzatuko direla aipatu du.

**ARETXABALETA** > KULTURA ETXE BERRIA

# Bost izen aurkeztu dira kultura etxerako

## Epaimahaiak proposamenak aztertu beharko ditu orain; horren iritzia datorren martxoaren 11n jakinaraziko da

**M.B.** > ARETXABALETA
Joan zen astelehenean amaitu zen kultura etxe berriaren izena aukeratzeko lehiaketan parte hartzeko epea. Kultura zinegotzi Lore Martinezek jakinarazi duenez, guztira, zazpi proposamen aurkeztu dira; bada, bik ez dituztebaldintza guztiak betetzen eta lehiaketatik kanpo geratu dira. "Izena eman bai baino ez dute arrazoitzen", dio Martinezek.

Proposamena aztertzeari ekingo dio orain epaimahaiak. Alkateak, kultur zinegotzi eta teknikariek osatuko dute hori, baita oraindik zehaztu barik dauden beste pertsona batzuk ere. Martxoaren 11n jakinaraziko da irabazlearen izena.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



**ZUZENDARITZA** Ines Mari Caceres, Haritz Saidi, Arkaitz Kortabarria eta Iker Larrea izango dira batzordean. JOSETXO ARANTZABAL

**ANTZUOLA** > MENDIA

# Arrolako batzorde berria lau lagunek osatuko dute

Bi astean, eguaztenetan, behin batzarra egingo dute zuzendaritza batzordekoek

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Egubakoitzean egin zuen Olaran etxean urteko batzar orokorra Arrola mendizale elkarteak.

Batzarrean berritu zuten ofizialki zuzendaritza batzordea. Jose Mari Alberdik, Andoni Balerdik, Eneko Iturbek, Aitor Peñagarikanok eta Patri Bideluzek batzordea utzi dute eta honako lau lagunek osatuko dute batzorde berria: Haritz Saidi, Ines Mari Caceres, Iker Larrea eta Arkaitz Kortabarriak; azken honek hartuko du elkarteko presidente kargua.

Arkaitz Kortabarriari aurrerako elkarteak dituen helburuen berri galdetuta esan digu elkartearen inguruan mugimendu gehiago izatea gustatuko litzaiekeela. "Azken urte hauetan jende gutxi ibili da eta gure asmoa da Arrola biziberritzea", dio presidenteak.

**IRTEERAK HILEAN BEHIN**

Horretarako, orain arteko bideari jarraituz irteerak antolatuko dituzte. Elkartea utzi berri duen zuzendaritza batzordearekin batera aurtengo irteeren egutegia gertatu dute. Gutxienez hilabetean behin egin nahi dituzte mendi irteerak eta hilabete batzuetan baita bi ere.

Hurrengo hitzordua martxoaren 9an izango dute; Bergarara joango dira Eskola Kirolaren baitan egiten duten umeen ibilaldi neurtura. Bestalde, martxoaren azken aste bukaerarako eskiatzera joateko asmoa dute eta hala egingo dute elurra badago.

Batzordeko kideak irteerak antolatzeko eta elkartearen funtzionamendua bermatzeko bi astean behin batzartuko dira eguaztenetan. Bestalde, irteerak daudenean egun eta ordutegi zehatz bat ipiniko dute Kalebarrengo lokalean izena emateko.

**ELGETA** > MENDI NEKAZARITZAKO DIRULAGUNTZA

# Udalak 29.739 euroko dirulaguntza jasoko du

Elgetako Mendi Batzordeak aurkeztutako hiru proiektuak diruz laguntzeko erabakia hartu du aurten Mendi Nekazaritzak

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Hiru proiektu aurkeztu zituen Elgetako mendi batzordeak Mendi Nekazaritzan eta hirurak diruz laguntzea onartu du erakunde horrek. Hiru proiektu horiek 45.753 euroko aurrekontua dute eta Mendi Nekazaritzak kopuru horren %65a hartuko du bere gain.

Aurrekontu handiena Azurtzako baserrietara ur hornidura eramatea helburu duen proiektuak dauka, 22.802 euro hain zuzen ere. Arraoz baserrira doan bidean, berriz, segurtasun hesiak ipiniko dituzte. Arrisku handia du bideak. Proiektuak 14.130 euroko aurrekontua du.

Mendi Nekazaritzak aurten Elgetan diruz lagunduko duen hirugarren proiektuak 8.821 euroko aurrekontua dauka. Egoetxeaga auzoko baserrietarako bidean konponketa lanak egingo dira diru horrekin.

Mendi Nekazaritzak hiru proiektuen aurrekontuaren %65a hartuko du bere gain, 29.739 euro hain zuzen. Gainerako %35a Udalaren eta auzotarren artean finantzatuko da.



**SEGURTASUN HESIAK** Arraoz bidean hesiak ipiniko dituzte. LARRAITZ ZEBERIO

**ARAMAIO** > HIRIGINTZA PLANA

# Auzo gehienetan aurkeztu dute dagoeneko hirigintza plana

Untzilla, Altzaga, Azkoaga-Zabola, Oleta eta Etxaguen auzoetan datorren astean aurkeztuko dute plana

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO
Otsailaren 5ean hasi zen Udala hirigintzako plan orokorra auzoz auzo aurkezten. Dagoeneko bederatzi auzotan izan dira eta datorren astean amaituko dute bira Untzilla, Altzaga, Azkoaga-Zabola, Oleta eta Etxaguen auzoak bisitatu ostean. Ibarran otsailaren 8an aurkeztu zituen Udalak bere asmoak eta alkatearen arabera kaleko biztanleek oso ondo hartu zuten plana. Auzoetan jasotako erantzunaren inguruko balorazioa ere ona izan da. 2006ko lurzoruaren legea zorrotzagoa da landa nukleoetan eta horrek auzotarrengan ezinegona sortu zezakeela uste zuten Udaletik."Landa guneetarako legeak aldatu egin dira eta zorrotzagoak dira orain. Arazo nagusia izan da auzotarrei ulertu araztea lege horrek ez dituela Udalak egiten" azaldu du Asier Agirrek. Izan ere, lege horrek landa nukleoen eta herriguneen arteko bereizketa egiten du. Landa nukleoak dira 25 etxe baino gutxiago dituzten guneak. Horietan, etxe berriak eraikitzeko legeak muga bat ezartzen du; ezin izango dira auzoak dauzkan etxe kopuruaren erdia baino gehiago eraiki. Edozelan ere, landa nukleoetan inoiz ezin izango dira 25 etxe baino gehiago egon.

Alkatearen esanetan hemendik eta plana onartu arte aldaketa asko egon daitezke. Herritarren iritziak ezagutu ala garatuko baitute plana. Aurre proiektua martxoan aurkeztea espero dute.

**LEINTZ GATZAGA** > SORGINAK EMAKUME ELKARTEA

# Hainbat ospakizun dituzte asteotan

Egubakoitzean, hilak 29, afaria egingo dute Maulanda jatetxean, denboraldi baterako kanpora doan taldekide bati agur esateko

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Gatzagako Sorginak emakume elkarteak hainbat ospakizun ditu azken asteotan. Egubakoitzean, otsailak 29, afaria egingo dute Maulanda jatetxean. Azken urteotan Sorginakeko zuzendaritzako kide izan den Mariatxen Arantzabal kanpora joango da denboraldi baterako, eta ospakizuna eginda esan gura diote agur emakume taldeko gainerako kideek eta lagunek. Antolatutako afarira joan gura duten emakumeek Labidea dendan eman behar dute izena, eta lehenbailehen egitea komeni da.

**MARTXOAREN 8AN, BAZKARIA**

Ez da izango asteotan egingo duten ekitaldi bakarra; izan ere, martxoaren 8an, zapatua, berriro elkartuko dira Emakumearen Eguna ospatzeko. Gatzagako Gure Ametsa jatetxean bazkaria eginda ospatzen dute martxoaren 8a Sorginek, eta aurten ere hasita daude antolatzen.

Bazkalostean, gainera, isuskiak banatzeko ohitura dute, urtero hiru "sorgini". Taldekide gehienek badaukate, baina baten batek jasoko du aurten ere. Ospakizuna bukatzeko dantzaldia izango dute.



> FUTBOLA
UDAk irabazi, Mondrak berdindu eta Aloña Mendik galdu > 16



> FUTBOLA
Garaipen erosoa lortu zuen Bergarak, zapatuan > 17



> ESKUBALOIA
Ford Mugarrik puntu bakarra lortu zuen bi partidutan > 18



> SASKIBALOIA
Igoera faserako garaipen inportantea lortu zuen MUk > 19

**ATLETISMOA** > ARRASATEKO TALDEA

# "Mojategiko atletismo pista Euskadiko onenetarikoa da"

**MAILA EZBERDINAK**
Eskolar mailatik hasi eta beteranoen mailara arteko atletak daude Arrasaten

**TXAPELKETAK**
Udako denboraldian jokatuko dira hainbat txapelketa Mojategiko pistetan



**PERTIKA** Argazkian, Leire Pagaldai, Maialen Axpe eta Lore Mar pertika-jauziko entrenamendua egiten. JOSETXO ARANZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE
Azkeneko hiru egubakoitzetan eskolarteko atletismo probak jokatu dira Mojategiko pistan. Han lortutako gutxieneko markekin Gipuzkoako txapelketetan parte hartuko dute Arrasateko atletek. Probak gertutik jarraitzen egon da atletismo saileko koordinatzaile Fernando Zufiria. "Momentuz, gutxieneko marka onak lortu dira, baina orain arte Arrasateko atletak bakarrik etorri dira. Gure asmoa da, hurrengo deialdiak Bergaran eta Oñatin egitea".

Gustura zegoen Fernando Zufiria atletek egindako lanarekin eta pista berriarekin. "Guretako oso ona izan da Mojategin pista egitea. Eta gainera, Euskadi mailan dauden pistetatik onenetarikoa da gurea. Alde horretatik ezin gara kexatu", esan zigun. "Gogoratu beharra dago, pista berria egin arte, kalean entrenatzen genuela eta distantziak lurrean markatzen genituela".

Edozelan ere, Mojategin ezin dira atletismoak dituen diziplina guztiak egin. "Xabalina, mailu eta disko jaurtiketak ezin dira egin, zelaia belar artifizialekoa da-eta".

**ETEKINA, APIRILETIK AURRERA**
Une honetan pista estaliko probak egiten dihardute. Hortaz, Mojategiko pistari etekin gutxi atera diote orain arte. "Apirila-maiatza aldera hasiko da udako denboraldia eta orduan antolatuko ditugu probak Arrasaten", diosku Zufiriak. Dena den, oraindik ez dakite ze proba izango diren, proba bakoitza zein tokitan jokatuko den Atletismo Federazioak erabakiko du-eta. "Gasteizeko Mendizorrotzako pistetan lanak egin behar dituzte eta horrek, txapelketa gehiago antolatzeko aukera emango digu", gaineratu zigun Fernando Zufiriak.

**ATLETAK MAILA EZBERDINETAN**
Pista berria eta dotorea eduki arren ez da jende gehiago animatu atletismoa egitera. Edozelan ere, neska-mutiko talde polita dute Arrasaten. "Alebin eta infantil mailetan 50 atleta inguru daude eta,gehienak, neskak dira. Gainera, federatutakoak, kadete mailatik gorakoak, beste 50 dira".

Atletismo taldean lau lagunek egiten dute lan. "Jonathan Perez arduratzen da pertikako entrenamenduetaz; Lorenzo Avilak, federatutakoekin egiten du lan eta Mikel Uribesalgo alebin eta infantil mailakoen entrenatzailea da. Eta dena koordinatzen, ni neu ibiltzen naiz".

**BABESLE BILA DABILTZA**
Atletismo taldeak duen hurrengo erronka babesle berria topatzea da. "Dagoeneko ate batzuk jo ditugu, baina ezin dugu ezer aurreratu", azaldu digu Zufiriak. Udaletik, AUKEAtik, Atletismo Federaziotik eta Eskola Kiroletik jasotzen du dirua atletismo sailak.

EUSKADIKO ATLETISMO TXAPELKETA

## Maialen Axperendako, brontzeko domina

Emaitzak onak lortu zituzten Arrasateko atletek aste bukaeran jokatutako Euskadiko pista estaliko txapelketan. Besteak beste, pertika-jauzian, Maialen Axpek 2,90 metroko jauziarekin brontzezko domina jantzi zuen kadete mailan. Proba berean, Lore Marrek 2,80 metroko jauzia egin zuen. Gainera, gazte mailan, Lide Pagaldaik 2,80 metroko jauzia egin zuen. Arrasateko hiru neskek martxoaren 15ean eta 16an jokatuko diren Espainiako txapelketetarako gutxieneko markak lortu zituzten. Aldiz, Jonathan Perezek 4,50 metroko hiru ahaleginetan huts egin zuen eta esku hutsik itzuli zen Anoetatik.

Bestalde, Eukene Dorronsorok 60 metrotako lasterketan 8,19 segundoko denbora egin zuen eta Oviedon jokatuko den txapelketarako gutxieneko marka lortu zuen. Remi Diosdadok eta Oihane Urtzelaik ez zituzten gutxieneko markak egin: alde batetik, Diosdadok 22,97 segundo egin zituen 200 metroko distantzian eta, beste alde batetik, Urtzelaik 4,65 metroko luzera-jauzia egin zuen.

**PREFERENTE MAILA** > 22. JARDUNALDIA

# Irabazteko aukerak izan arren, puntuak banatu zituzten

Batez ere, bigarren zatian garaipenaren gola egiteko aukerak garbiak izan zituzten bi taldeek



**BURUZ** Argazkian, Gotzon Urtzelai baloia buruz eroateko asmoz, Trintxerpeko jokalariekin lehian. JOSETXO ARANZABAL

MONDRA
**1-1**
TRINTXERPE

**Mondra** > Calvo, Andoni, De Luis (Muxi, 46. min.), Castelos (Laspiur, 5. min.), Arazkonaga, Ruben (Gotzon, 45. min.), Keixi (Illart, 46. min.), Heriz, Murua, Ekain (Lopez, 61. min.) eta Altzola.

**Trintxerpe** > Asier, Carrizo, Oiartzun (Diaz, 75. min.), Gonzalez, Solana, Maraña, Iza (Diaz II.a, 75. min), HIdalgo (Berasategi, 70. min.), Gartzia (Samaniego, 65. min.), Abrego (Lasa, 57. min.) eta Perez..

**Epailea** > Ulazia jauna. Arazo barik.

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Preferente mailako 22. jardunaldiko partidua jokatu zuten zapatuan Mojategin, Mondrak eta Trintxerpek. Sailkapeneko laugarren tokian dagoen taldeak gauzak oso zail ipini zizkion lehen zatian Igor Gordobilen taldeari. Baina, etxekoek, bigarrenean, gutxienez puntu bat eskuratu zuten. Hori bai, bai Mondrak eta baita Trintxerpek ere, norgehiagoka irabazteko hainbat gol aukera izan zituzten.

**TRINTXERPE, INDARTSU**

Zapatuko partiduko lehenengo zatian Pasaiako taldeak erakutsi zuen sailkapeneko laugarren tokian zergatik dagoen. Joko ikusgarria egin barik, sendotasuna erakutsi zuen eta lehen zatia menderatu zuen. Gainera, berehala hartu zuen aurre markagailuan, zazpigarren minutuan Perezek egindako golari esker.

Abantailarekin, Trintxerpek zelai erdia kontrolatu zuen. Era berean, korner erdiraketetan arriskua sortzen zuen Mondraren atean. Dena dela, etxekoek izan zuten partidua berdintzeko aukerarik atsedenaren aurretik: 30. minutuan Julen Herizek ez zuen azken errematean asmatu, eta 40 minutuan Muruaren jaurtiketa kanpora joan zen.

**BIGARRENEAN, GOGO GEHIAGO**

Atsedeneko aholkuak entzun ondoren, etxeko jokalariak indar berrituta irten ziren zelaira. "Punturen bat lortzeko gogo gehiago jarri behar genuela ikusi dugu atsedenean eta lortu dugu", esan zigun lehia bukaeran Iban Garai *Muxik*. Gordobilek bi aldaketa egin zituen atsedenean eta taldeak beste itxura bat eman zuen. Dena dela, berdinketa 70. minutuan egin zuten arrasatearrek. Korner erdiraketa motzean atera zuen Jon Muruak eta Iker Lopezen erdiraketa buruz, ate barrura errematatu zuen Julen Herizek etxekoendako berdinketaren gola egiteko.

Berdinketarekin bi taldeek lehia irabazteko hainbat gol aukera izan zituzten. Hain zuzen, Mondraren aukera bat oso garbia izan zen: hain justu ere, 85. minutuan Muruak jokaldi pertsonala egin ondoren, baloia zutoinera bota zuen.

**PREFERENTE MAILA** > 22. JARDUNALDIA

# Lehia bigarren zatian erabaki zuen Aretxabaletak

Atzoko garaipenarekin Igor Arenatzaren taldeak bosgarrena lortu du jarraian eta sailkapeneko bosgarren tokian daude 37 punturekin



**LEHEN GOLA** David Espinosak lortu zuen lehen gola etxekoendako. J.ARANZABAL

UDA
**3-0**
ANAITASUNA

**M.B.** > OÑATI

Bolada onarekin jarraitzen du Aretxabaletako futbol taldeak. Atzo, preferente mailako 22. jardunaldian Azkoitiko Anaitasuna menderatu ondoren bosgarren garaipena jarraian lortu zuen. Gainera, pauso berri bat eman du sailkapenean eta orain bosgarren tokian dago UDA 37 punturekin.

**GOLAK, BIGARREN ZATIAN**

Atzo arratsaldean Ibarra futbol zelaian jokatu zen norgehiagoka bigarren zatian erabaki zuen UDAk. Anaitasuna puntu beharrean irten den zelaira eta lehenengo zatian atea hutsean mantentzea lortu zuen. Baina, bigarrenean etxekoek talde sendoagoa dutela erakutsita hiru gol egin zituzten. Etxeko taldea asko lasaitu zen 52. minutuan David Espinosak lehen gola egin zuenean. Abantailarekin Arenatzaren taldeak ez zuen arazorik eduki lehia menderatzeko.

Bigarren gola Erikok egin zuen 65. minutuan eta hirugarrena, 85. minutuan Unai Uribetxeberriak lortu zuen.

**PREFERENTE MAILA**

# Aloña esku hutsik, lan ona egin arren

**M.B.** > OÑATI

Puntu barik bueltatu zen Aloña Mendi Berio taldearen kontrako partidutik. Josu Zubiaren taldeak zelai erdia eta lehia menderatu zituen, batez ere bigarren zatian. Baina, garaipenaren gola Beriok egin zuen.

**KONTRAERASOAN**

Berio izan zen partiduko lehen gola egin zuena. Baina, hurrengo jokaldian, kontraerasoa aprobetxatuz Asier Ugartek berdinketa lortu zuen. Aloñak, lehenengo zatian egindako lan onarekin jarraitu zuen bigarrenean ere. Baina, eraso baten baloia galdu ondoren, kontraerasoan Beriok bigarren gola egin zuen.

**LEHEN ERREGIONALA** > BERGARA, BOLADA ONEAN

# Martuteneri lau gol egin eta gero, igoerarako lehian da Bergara

BERGARA
**4-0**
MARTUTENE

**Bergara** > Sesma, Josu, Urteaga (Lazpiur, 50. min.), Aitor (Otero, 56. min.), Loiola, Nafarrete (Unai Bilbao, 72. min.), Balzategi, Unai, Markel (Gomez, 53. min.), Eloy eta Martinez (Martin Ibañez, 60. min.).

**Martutene** > Ioritz, Iñigo, Ekaitz, Olano, Xuban, Pako, Isaak, Mikel, Altola (Xabi, 68. min.), Zapi eta Jon Ruiz.

**Bestelakoak** > Ohi baino ikusle gutxiago Agorrosinen, 250 lagun inguru. Eneko Loran epaileak sei txartel hori atera zituen, eta Martuteneko Manzano entrenatzaileari eta Pako jokalariari gorria atera zien. Eztabaida ugari Bergarako eta Martuteneko aulkikoen artean.



**LAU GOL** Argazkian, Balzategi aurrelaria. Berak egin zuen aurreneko gola zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Martuteneri 4 eta 0 irabazita, igoera lortzeko borrokan egon nahi duela azaldu zuen Bergarak zapatuan, Agorrosinen. Manu Diazen mutilek ez zuten inolako eragozpenik izan hiru puntuak eskuratzeko, aurrean talde benetan ahula izan zutelako. Irudi oso eskasa eman zuten Donostia aldekoek. Hala ere, borroka ez zen falta izan eta horren lekuko, epaileak erakutsitako sei txartel horiak eta bi gorriak. 64. minututik aurrera jokalari bat gutxiagorekin jokatu zuen Martutenek, epaileak Pako atzelaria kanporatu ondoren. Ordurako, baina, markagailuan 3 eta 0 aurrean ziren etxekoak. Manzano Martuteneko entrenatzaileari ere gorria atera zion epaileak, Bergarako aulkikoekin eztabaida gogorra izan ondoren.

**BI GOL ZATI BAKOITZEAN**

Esan bezala, partidu erraza izan zen Bergararentzat. Lehen zatian 2-0 aurreratu ziren mahoneroak, Balzaren (28. minutuan) eta Markelen (43. min.) golei esker.

Bigarren zatian ere etxekoak izan ziren jaun eta jabe eta Martuteneren zelaian jokatu zen ia bigarren zati osoa. Bisitariak behin bakarrik iritsi ziren arriskuarekin Sesmaren ate ingurura. Hala ere, lau gol egitearekin konformatu behar izan ziren etxekoak. 60. minutuan etorri zen jokaldirik politena: Markelek bikain utzi zion buruz Martinezi eta honek, ezkerkada bortitz batekin, sareetara bidali zuen baloia. Txalo zaparrada ekarri zuen Martinezen golak.

Bergarak aise menderatzen zuen, baina aukera larregi egin barik. Bergarar aurrelariak jokoz kanpo uzten ahalegintzen zen Martutene behin eta berriz. Nafarretek buruz egin zuen laugarrena, 66. minutuan, eta hortxe bukatu zen partidua. Handik aurrera, punteria okertu zitzaien etxekoei.


ARTXIBOA

## Antzuolak 4-0 irabazi zion Ilintxari

Antzuolak Bergararekin eta Rotetarekin berdinduta jarraitzen du, zapatuan, Estalan, Ilintxari 4 eta 0 irabazi ondoren. Etxekoak erraz nagusitu zitzaizkien legazpiarrei. Lehen gola Ilintxako defentsak bere atean egin zuen, 2 . minutuan. Lehen zatian iritsi zen bigarrena, Jon Gurutz Godoik eginikoa eta bigarren zatian Iñaki Agirre eta Josu Zubikarai izan ziren golegileak. Hurrengo jardunaldian Urolari bisita egingo dio Antzuolak.


JOSETXO ARANTZABAL

## BTLS taldeko neskak, igoera bidean

Bergarako BTLS nesken taldeak 3-1 irabazi zion zapatuan Tolosari, Ipintzan. Zazpi partiduren faltan, Iban Da Silvak entrenatutako taldeak lehen postuan jarraitzen du igoera fasean. Hirugarren tokian dagoen Tolosaren aurka partidu ona egin zuten. Ainhoa Alonsok sartu zuen lehen gola, eta atsedenaren aurretik Maialen Hernandezek egin zuen 2-1ekoa. Maialen Alkortarena izan zen lasaitasunaren gola.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Real Union** | **43** | 22 |
| 2. **Ordizia** | **42** | 22 |
| 3. **Berio** | **41** | 22 |
| 4. **Trintxerpe** | **39** | 22 |
| 5. **Aretxabaleta** | **37** | 22 |
| 6. **Aurrera de Ondarroa** | **34** | 22 |
| 7. **Mondra** | **33** | 22 |
| 8. **Hernani** | **32** | 22 |
| 9. **Euskalduna** | **29** | 22 |
| 10. **Hondarribia** | **28** | 22 |
| 11. **Idiazabal** | **27** | 22 |
| 12. **EHU Vasconia** | **25** | 22 |
| 13. **Aloña Mendi** | **24** | 22 |
| 14. **Anaitasuna** | **23** | 22 |
| 15. **Eibartarrak** | **21** | 22 |
| 16. **Touring** | **21** | 22 |
| 17. **Zestoa** | **21** | 22 |
| 18. **Zumaiako** | **20** | 22 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Real Union-Zumaiako | 2-1 |
| Hondarribia-EHU Vasconia | 1-1 |
| Berio-Aloña Mendi | 2-1 |
| Ordizia-Zestoa | 3-1 |
| Euskalduna-Idiazabal | 0-1 |
| Aretxabaleta-Anaitasuna | 3-0 |
| Aurrera de Ondarroa-Eibartarrak | 1-1 |
| Touring-Hernani | 2-1 |
| Mondra-Trintxerpe | 1-1 |

**Hurrengoak**

EHU Vasconia- Real Union
Aloña Mendi-Hondarribia
Zestoa-Berio
Idiazabal-Ordizia
Anaitasuna-Euskalduna
Eibartarrak-Aretxabaleta
Hernani-Aurrera
TrintxerpeTouring
Zumaiako-Mondra

### BESTELAKOAK

**LEHENENGO ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Martutene | 4-0 |
| Antzuola-Ilintxa | 4-0 |

**BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Martutene-Aretxabaleta | 1-4 |
| Amaroz-BTLS | 1-2 |
| Mondra-Getaria | 5-3 |

**BIGARREN ERREGIONALA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Elgeta-Zestoa | 0-1 |

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Union Txiki | 0-1 |
| Bergara-Sanse | 2-0 |

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Mondra-Aloña Mendi | 1-2 |

**LEHEN MAILAKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Segura | 6-0 |

**OHOREZKO MAILAKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Bergara | 2-1 |

**LEHEN MAILAKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Allerru | 2-2 |
| Aretxabaleta B-Ostadar | 1-5 |

**EMAKUMEZKOEN, KOPA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi B-Arizmendi | 0-4 |
| Mutriku-Mondra | 3-3 |

**EUSKADIKO TXAPELKETA** > BI PARTIDU ARRASATEN

# Etekin gutxi atera zioten aste bukaerako jardunaldi bikoitzari

FORD MUGARRI
**27-28**
BARAKALDO

**Ford Mugarri** > Igor, Asier, Xabi (1), Jonan (5), Aitor (4), Iker (1), Fertxu, Arkaitz, Jorge, Iker, Nestor (6), Jokin (3), Kepa (5) eta Joseba..

**Barakaldo** > Sagasti (3), Lucas (1), Ansoleaga (5), Alonso (5), Martinez, Gontzal, Ansoleaga, Orondo (1), Alonso (2), Mallas (2), Gaizkondo (2), Gartzia (7) eta Segura.

**Golak bost minuturo** > 2-0; 6-4, 7-5, 9-7, 10-8, 10-10. Atsedena. 14-13, 18-15, 19-18, 22-22, 25-24, 27-28.



**DEFENTSA** Argazkian, Jonan Eskibel Barakaldoko defentsaren kontra lehian. JOSETXO ARANZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Euskadiko txapelketako jardunaldi bikoitza jokatu zuen aste bukaeran Ford Mugarrik: egubakoitzean Basauriren aurka atzeratutako partidua, eta zapatuan, Barakaldoren kontra.

Jokoan zeuden lau puntuetatik bakarra eskuratu zuten arrasatearrek. Hortaz, etekin gutxi atera diote aste bukaerako jardunaldi bikoitzari.

Etxekoek orain, 16 puntu dituzte sailkapenean liga bukatzeko sei partidu falta direnean.

**BASAURIREN AURKA**

Santamas egunean jokatu beharreko partidua egubakoitzean jokatu zuten Ford Mugarrik eta Basaurik. Arrasatearren asmoa lehia irabaztea zen, bi taldeak parekatuta daude-eta sailkapenean; baina lehia berdinketarekin bukatu zen: 32-32.

**TALDE INDARTSUENETARIKOA**

Zapatuko norgehiagoka zailagoa zen, aurkaria Barakaldo zen-eta, Euskadiko txapelketako talderik indartsuenetarikoa. Edozelan ere, Ford Mugarrik eskura izan zuen garaipena, lehia bukatzeko bost minutu falta zirenean, bi goleko errenta zuen-eta: 26-24.

**LAU JOKALARIREKIN BAKARRIK**

Musakolan jokatutako lehiako lehenengo zatia nahiko parekatua izan zen. Etxeko taldeak bakarkako defentsa egin zion Barakaldoko Sagasti jokalariari. Gainera, markagailuan aurretik egon ziren minutu askotan eta, gehienez, hiru goleko errenta izan zuten: 7-4 eta 9-6. Baina, atsedenera heldu aurretik Barakaldok partidua berdintzea lortu zuen: 10-10.

Bigarren zatiaren hasieran lau goleko tartea zabaldu zuten etxekoek: 18-14. Baina, handik aurrera partidua gogortu egin zen. Minutu batzuetan etxekoek lau jokalarirekin jokatu zuten eta Barakaldok egoera hura aprobetxatu zuen markagailuan lehen aldiz aurretik ipintzeko: 20-21. Ford Mugarrik bi goleko tartea zabaldu zuen berriro ere, baina partidua berdintzeko jaurtiketa huts egin zuten.

**EUSKADIKO TXAPELKETA** > LABEGARAIETAN

# Bergarak beste partidu bat galdu zuen etxean

BERGARA
**34-39**
LEA CORAZONISTAS



**JAURTIKETA** Argazkian, Iñaki Manuel jaurtiketa egiteko gertu. JOSETXO ARANZABAL

**M.B.** > BERGARA

Euskadiko txapelketako sailkapenaren erdian Bergararekin lehian dagoen Lea Corazonistas taldearen kontra huts egin zuen berriro ere Bergarak. Urolaren kontra galdu ondoren, etxekoek ezinbestekoa zuten puntuak lortzea. Baina, bigarren zatian ez zuten aukerarik eduki.

**BIGARREN ZATIAN, EZIN**

Azken markagailuak erakusten duen moduan gol askoko partidua jokatu zuten zapatuan Labegaraietan."Defentsan oso gaizki jokatu dugu", esan zigun Bergarako entrenatzaile Josetxo Muniategik, "gainera, Leak egiten duen joko azkarrarekin kutsatu gara eta partidua pikutara joan zaigu".

Lehenengo zatian partidua nahiko parekatua izan zen. Hala, atsedenean Lea taldeak gol bakar bateko abantaila zuen: 15-16. Baina, bigarrenean, joko azkarrari esker, hiru eta lau goleko tartea zabaldu zuen, eta Bergarak ez zuen aukerarik izan norgehiagokari buelta emateko.

**EUSKADIKO TXAP.**

# Lasaitasuna ematen duen garaipena

VERKOL ALOÑA
**28-26**
EREINTZA

**M.B.** > OÑATI

Emakumezkoen Euskadiko txapelketako hamalaugarren jardunaldiko partidua jokatu zuten zapatuan Verkol Aloñak eta Ereintzak. Oñatiko taldeak lortutako puntuak oso onak dira sailkapenean arnasa apur bat hartzeko. Izan ere, Aloña eta Ereintza jaitsiera postuetatik ihes egiteko lehian aurkari zuzenak dira.

**ZORTZI JOKALARI EGOTZITA**

"Puntuak oso inportanteak dira guretako, baina batez ere, taldeak erakutsitako jarrerarekin geratzen naiz", esan zigun amaieran taldeko entrenatzaile Maitane Ruizek. Beraz, jarrera onarekin jokatu zuten Ereintzaren aurka oñatiarrek. Epaileek Aloñako zortzi jokalari bi minutuz egotzi zituzten arren, lehenengo zatian, etxekoek, bost goleko tartea zabaldu zuten, 14-9. "Epaileen lana nahiko txarra izan da, lehenengo zatian, 16 minutuetan jokalari bat gutxiagorekin jokatu dugu", azaldu zigun entrenatzaileak.

Oztopoak oztopo, bigarren zatian markagailuko aldea mantendu zuten eta puntu garrantzitsuak lortu zituzten.

Liga bukatzeko lau partidu geratzen dira. Aloñak etxean jokatuko du Zuazo eta Elorrioren aurka, eta kanpoan, IES Construccion eta Askartzaren aurka.

**emaitzak**

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Ford Mugarri-Basauri | 32-32 |
| Ford Mugarri-Barakaldo | 27-28 |
| Bergara-LEa Corazonistas | 34-39 |
| **EUSKADIKO SENIOR NESKAK** | |
| Verkol Aloña-Ereintza | 28-26 |
| **LEHENENGO TERRITORIAL MAILA** | |
| Arrasate-Urnietako | 23-32 |
| **BIGARREN TERRITORIAL MAILA** | |
| Aloña Mendi-Leizaran | 22-27 |
| Allerru-Bergara | 19-25 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| La Salle-Arrasate | 34-31 |
| Aloña Mendi-Donibane | 27-21 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Katilu-Berezao Aloña | 49-34 |

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA

# Ardoiri irabazi ostean, lehen postuari eusten diote MUkoek

Sailkapeneko lehenak eta bigarrenak maila ona erakutsi bazuten ere, etxekoek garaipena eskuratu zuten




**GORKA ALARTZIA** MUko saskiratzaile nagusiena izan zen Alartzia; 22 puntu egin zituen. JOSETXO ARANTZABAL

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**84-67**
ARDOI

**Mondragon Unibertsitatea** > Alartzia (22), Kintana (13), Hernandez (13), Biain (12), Peña (2), Gamarra (11), Mallabiabarrena (7), Arejolaleiba (2) eta Atxa.

**Ardoi** > Davila (27), Castellanos (14), I. Janices, (7), Urtasun (5), Irisarri (2), Etxeberria (3), Domeño (5), Arbella (4), A. Janices, Abaurrea eta Diez.

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 15-15. Bigarren laurdena: 36-23. Hirugarren laurdena: 62-46. Laugarren laurdena: 84-67.

**J. ZABALA/M. BITERI** > ARRASATE
Aurkari gogorra eduki bazuen ere, Mondragon Unibertsitateak (MU) partidu hobeagoa egin zuen eta garaipena lortu zuen zapatuan Iturripen. Etxekoak 17 puntuko aldearekin (84-67) nagusitu ziren, Iruñako Salvay Ardoi taldearen kontra. Igoera faserako partidu puntuagarria eta inportantea zen zapatukoa.

Partiduaren hasieran bi taldeen arteko parekotasuna igarri zen. Iruñakoek defentsa gogorra egin zuten eta etxekoek ez zuten barruko jokoa egiteko aukera larregirik izan. Alartziaren hirugarren faltak, gainera, lehenengo laurdenaren jokoa baldintzatu zuen. Berdinketarekin amaitu zuten, 15-15.

Bigarren laurdenean, Jagoba Gamarrak jarraian sartutako bi hirukoitzek etxekoen aldea handitzeko balio izan zuten. Horrez gain, Iñaki Merinoren taldeak defentsa hobeagoa egin zuen eta hori markagailuan nabaritu zen. Bigarren laurden horretan Ardoikoek zortzi puntu baino ez zituzten sartu (36-23).

Bigarren zatian defentsan eta erasoan ondo jokatu zuen MUk. Ardoik, hasieran, defentsa aldatu zuen, banakotik zonakakora, eta aldea bederatzi puntura jaistea lortu zuen.

Baina, aldea txikitzeko asmotan, baloi asko galdu zituzten aurkariek eta horrek etxekoen kontraerasoa eragin zuen. Alartziaren irteerak ere aldea handitzen lagundu zuen, 62-46 arte. Azken laurdenaren hasieran, etxekoak urduritu ziren eta aldea zortzi puntura murriztu zen. Baina, hortik aurrera, nafarrek jaurtiketetan arinegi jokatu zuten eta Merinoren mutilek partidua apurtzeko aprobetxatu zuten. Azkenean, 84-67 nagusitu ziren etxekoak.

**TXIRRINDULARITZA** > AURKEZPENA

# Dorletako Ama taldearen aurkezpena

Aurten ez dute gora behera handirik espero; joan zen urteko egutegi berdina izango dute eta fitxa kopurua ere antzekoa da. Lau talde ibiliko dira, bi mendian




**AURKEZPENA** Leintz-Gatzagako plazan egin zuten Dorletako Ama taldekoek aurkezpena, zapatu goizean. JOSETXO ARANTZABAL

**M.B.** > LEINTZ GATZAGA
Leintz Gatzagako Dorletako Ama Txirrindulari Taldeak zapatuan egin zuen aurtengo denboraldiko taldeen aurkezpena. Guztira, 41 txirrindulari ibiliko dira aurten, lau taldetan banatuta. Taldeko kide Jon Urrutiak esan du aurten ez dituztela "gora behera handirik espero. Joan zen urteko denboraldiaren antzekoa izango dela uste dugu".

Errepideko bizikletan infantilak ibiliko dira batetik. Zirkuitu itxietan ibiliko dira horiek, ikasten. Kadeteak, berriz, hainbat lasterketatan parte hartzeko moduan egongo direla aipatu dute Dorletako Amako arduradunek.

**MENDIKO BIZIKLETA**
Azken urteetan bezala, mendi bizikletan ere bi talde lehiatuko dira aurtengo denboraldian: gazteena eta nagusiena, hain zuzen. Datorren aste bukaeran bertan ekingo diote lasterketan parte hartzeari. "Baina martxoan izango da denboraldian bete-betean sartzen garenean", aipatu du Urrutiak. Horrekin batera, mendiko bi taldeak aurten "nahiko ondo" ibiliko direla aurreratu du.

Taldeen aurkezpena egin aurretik, eta ohikoa den moduan, Dorletako Amari lore eskaintza egin zioten txirrindulariek. Jarraian, Leintz Gatzagara joan ziren, aurkezpeneko argazkia ateratzeko.

Aulkitik kantxarako jauzia egin du Fertxu Rodriguezek. Ford Mugarri taldeko entrenatzaileetako bat da, baina taldea osatzeko arazoak tarteko, berriro jokatzen hasi da. Ez zaio ahaztu. Izan ere, esperientzia handiko jokalaria da. Arrasaten, Aloña Mendin eta Arraten jokatu izan du eta duen esperientzia, zalantzarik ez, ondo etorriko zaio Ford Mugarriri.

**Fertxu Rodriguez** > Ford Mugarriko jokalaria

# "Mailari eusteko liga amaitu bitartean bi partidu irabazi beharra daukagu"

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

**Aurreko denboraldian hasi zen Fertxu Rodriguez (33 urte) entrenatzaile lanetan Ford Mugarrin, Beñardo Balerdirekin batera. Aurretik Arrasateko taldean, Arraten eta Aloña Mendin jokatu zuen. Orain, jokalari eskasiak behartuta, kantxan dugu berriro, gogoz. Arrasatearrek ez dute partidurik irabazi asteburuan; egubakoitzean Basauriren aurka puntu bat eskuratu zuten (32-32) eta zapatuan galdu egin zuten Barakaldoren aurka (27-28).**

**Toreroen antzera, erretiroa hartzeko gogorik ez, ala?**

Kontua da oso jokalari gutxirekin ari garela aspaldian. Bederatzi-hamar jokalarirekin ibili gara hainbat partidutan eta horrela zaila da deialadia osatzea. Denon artean hartutako erabakia izan da ni berriro jokatzen hastea: Andoni Arando taldeko koordinatzaileak, Zigor Masip delegatuak, Juan Luis Isasmendik eta Beñardok berak aukera hori planteatu zuten eta ni, gertu ahal dudan guztia emateko. Iker Zubiaurre elgoibartarra ere gurekin jokatzen hasi da; ezinekoa izan da beste pare bat jokalari ekartzea. Beraz, entrenatzailearen aginduetara orain...

**Pare bat denboraldiko *atsedenaren* ostean, gogorra izan da kantxara itzultzea?**

Egia esateko, espero baino hobeto egon naiz. Azken baten, urtean zehar taldekideekin entrenatu naiz eta ez dut hasieran uste bezain beste sufritu partiduen ostean... Ez nago nire aurreko jokalari sasoian bezain fin, baina fisiko aldetik nahiko ondo erantzun dut orain arte jokatutako hiru partiduetan. Orain bi aste, Urdulizen aurka jokatu nuen aurrena eta oraingo asteburuan bi izan ditugu etxean, Basauri eta Barakaldoren aurka.

**Jokatutako bi partiduetan puntu bakar batekin konformatu behar izan zarete.**

Hala da, Basauriren kontra aukera ona galdu genuen egubakoitzean. Sei partidu geratzen zaizkigu orain liga bukatzeko eta bi partidu irabazi beharra dugu mailari eutsi ahal izateko. Oraindik ez dago jakiterik zenbat talde jaitsiko diren. Bi, hiru edo lau talde izan daitezke kategoria galduko dutenak eta momentuan sailkapeneko 9. tokian daude [14 taldek osatzen dute Euskadiko Liga]. Gutxienez, lau talde utzi




Fertxu Rodriguez, egubakoitzeko Basauriren kontrako partiduaren atarian, Iturripen. JOSETXO ARANTZABAL

TALDEA

**"Edozeini irabazteko gauza garela erakutsi dugu baina, aldi berean, irregulartasun handia izan dugu zenbaitetan"**

behar ditugu atzean, inolako arazorik ez izateko.

**Iazko denboraldiaren antzekoa egiten ari zarete...**

Bai, orduan ere lehen itzuli oso ona egin genuen, aurten bezala, baina liga amaieran sufritzea tokatu zitzaigun, lesioen eta gure

ITZULERA

**"Egia esateko, espero baino hobeto egon naiz kantxan; %100 ematen saiatzen naiz beti, azken segundora arte"**

akatsen erruz. Aurten ere bigarren itzulian ez gaude oso fin. Berdintasun handia dago talde gehienen artean; argi dago aurrealdean diren Barakaldok, Askartzak eta Egiak besteok baino maila dezente handiagoa dutela baina hortik behera indarrak oso parekatuta daude. Beharbada, behe-

EUSKADIKO LIGA

**"Aurten ere bigarren itzulian ez gaude uste bezain fin. Berdintasun handia dago talde gehienen artean"**

aldetik Urola eta Urdaneta dira talderik ahulenak. Liga amaierara arte borrokatu beharko dugu.

**Kantxan eta aulkian oso ezberdin biziko dituzu partiduak...**

Aulkian askoz ere gehiago sufritzen dut, urduriago egoten naiz ezin dudalako nahiko nukeen moduan lagundu. Argi dago intentsitatea kantxan dagoela eta jokatzen askoz gehiago disfrutatzen dela.

**Zure moduko jokalari beterano batek zer nolako ekarpena egin diezaioke taldeari?**

Nahiz eta partidua erraz irabazten joan, %100 ematen saiatzen naiz beti. Hemen ez dago lasaitzerik, eta hain zuzen hainbat puntu horrela galdu ditugu, gehiegi erlaxatzearren. Bestalde, partiduak eskatzen duen erritmoari egokitzeko lagundu ahal diet taldekideei. Partiduak *irakurtzen* jakitea ezinbestekoa da eskubaloian, noiz moteldu behar den jokoa, noiz bizitu eta horrelakoak. Esperientziarekin ikasten dira horrelakoak.

**Non nahiago duzu jokatu, pibote postuan ala hegalean?**

Batez ere atzeko aldea sendotzeko asmoz bueltatu naiz. Nagusiki erdiko defentsa lanetan ibiliko naiz, erasora begira nahiko jokalari ditugu-eta.

**Eta zein sistemarekin aritzen zara gusturago?**

Normalean Beñardok 6-0ko defentsa agintzen digu, baina niri 5-1ekoa gustatzen zait gehiago, jokalari bat aurrerago jarrita alegia. Arrisku gehiago dakar baina Arraten urte askoan egin dugu defentsa hori eta atsegin dut. Edozein modutan, sistema bat edo beste bat erabilita, jokalari guztien konpromisoa eta lana ezinbestekoak dira partiduak aurrera ateratzeko. Denok dakigu zer egin behar dugun.

**Zeintzuk dira taldearen puntu indartsuak eta ahulak?**

Edozeini irabazteko gauza garela erakutsi dugu baina, aldi berean, irregulartasun handia izan dugu eta konfiantza faltagatik-edo, puntu dezente galdu ditugu, Urolaren aurka etxean galdutako puntu hura adibidez. Bestalde, taldean dugun giro ona nabarmenduko nuke.

**Arraterekin urte dezente eman zenituen Ohorezko B mailan. Asobal ligako sorpresetako bat dira eibartarrak...**

Bai, eta pozten naiz. Viktor Debrek lan bikaina egin du eta saskibaloian Iurbentiak egin duen moduan, koparako sailkatu da Arrate. Ea Europarako postuen aurrean sartzen diren. Lorpen handia litzateke.

**OÑATI**

# Neska mutiko ugarik kirolean jardun zuten zapatuan Zubikoan

**ARETO FUTBOLA** Laugarren mailako neska-mutikoek ederki asko jokatu zuten zapatu goizean areto futbolean

**GIRO ONA** Aulkian eserita, ordezkoek gogoz animatzen zituzten taldekideek zapatuko partiduetan

**GURASOEN LAGUNTZA** Entrenatzaile lanetan aritzen diren gurasoen laguntza ezinbestekoa da Eskola Kirolean

ARRITXU BARRUSO> OÑATI

Saskibaloia, areto futbola, zazpiko futbola eta eskubaloia. Kirol hauek guztiak izan ziren ikusgai zapatu goizean Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Oñatiko hirugarren eta seigarren maila bitarteko umeek gogoz eta seriotasun handiarekin jokatu zituzten zegozkien partiduak.

Hirugarren mailako haurrak eskubaloian jokatu zuten. Mutiletan Aloñakoek Aratzekoen aurka eta Oltzakoek Urbiakoen kontra. Nesketan, berriz, Erbiak eta Jirafak jokatu zuten lehenengo partidua eta bigarrenean Katuak eta Sugeak. Laugarren mailako neska mutikoak areto futbolean jardun zuten, ederki asko gainera. Taldekideen artean oso giro ona sumatzen zen. Aulkietan eserita gogotsu animatzen baitzituzten kantxan jolasean zebiltzan taldekideak. Dena dela, arerioaren aurkako oihuren bat edo beste ere botatzen zuten noizean behin. Andartokoek Kataberakoen kontra jokatu zuten goizeko hamarrak eta laurdenetan hasita. Bigarren partiduan Orkatzategik Andraitzen aurka egin zuen. Bosgarren mailakoak zazpiko futbolean jardun zuten eta seigarren mailakoak, berriz, saskibaloian.

Ume asko, beraz, Zubikoa kiroldegia zapatu goizean. Baina baita entrenatzaile mordoa ere. Haurren gurasoek entrenatzaile lanak egiten dituzte eta ume guztiek denbora bera jolas dezaten saiatzen dira. Kiroltasunaren aldeko apustu garbia egiten duten entrenatzaileak dira.



A.B.

**Katabera.** Ekaitz, Mikel, Gorka, Bitter, Xabier, Aitor eta Mikel. Argazkian euren entrenatzaile Konradorekin.



A.B.

**Andarto.** Argazkian ezkerretik hasita, goian, Aitor, Beñat, Jokin eta Jon. Belauniko, Haritz, Kevin eta Xabier.



A.B.

**Okatzategi.** Goian Iban, Beñat, Ioritz eta Joseba eta belauniko Andoni, Eneko, Asier eta Auritz.



A.B.

**Andraitz.** Taldekide batzuk falta zirela-eta Danelek, Jokinek, Gorkak eta Asierrek egin zieten aurre Okatzategikoei.

ZEIN KIROL GUSTATZEN ZAIZU GEHIEN ETA ZEIN GUTXIEN?



**Unai Freire eta Joseba Anduaga**
9 urte

Unaik saskibaloia du gustukoen eta eskubaloia, berriz, ez zaio horrenbeste gustatzen. Josebari ere eskubaloia da gutxien gustatzen zaion kirola, eta gustukoen futbola omen du. Eskubaloian baloia ate-area kanpotik bota behar dela-eta ez zaie asko gustatzen. Bikote honek nahiago du atera gerturatu baloia botatzerako orduan



**Auritz Larrea eta Ioritz Gonzalez**
9 urte

Auritzek eta Ioritzek bat egin dute galdera erantzuterako orduan. Gehien gustatzen zaien kirola futbola da eta gutxien gustatzen zaiena, berriz, igeriketa. Igerilekuan jolasak egiten dituztenean gustura joaten direla azaldu dute baina ariketak eta igeri egitea ez zaie gehiegi gustatzen Auritzi eta Ioritzi.



**Aitor Irizar**
9 urte

Aitor futbolean gustura aritzen den arren, atletismoa da gehien gustatzen zaiona. Berak azaldu digu atletismoa egiten hasi zenetik oso gustura dabilela. Igeriketa da gutxien gustatzen zaiona. Aitorrek azaldu digu ura ez zaiola gehiegi gustatzen.



**Jokin Atxa**
9 urte

Jokini ere igeriketa da gutxien gustatzen zaion kirola, uretan ibiltzea ez omen zaio asko gustatzen. Futbola da gustukoen duen kirola. Eskola Kirolean ezezik lagunekin ere asko jolasten du futbolean. Golak sartzea da gehien gustatzen zaiona.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

# Hedabide guztietarako telefono berria eta bakarra

# 943 25 05 05

Goitb Goiena Telebista
Asteleheneko Goienkaria
Goienkaria
FM 107.7 Arrasate Irratia
Goiena.net Debagoieneko Interneteko ataria



**> KONTZERTUA**
Kassin, Domenico eta Morenorekin eserita eta dantzan **> 25**



**> CAPTAIN NEMO**
1280 Euskal Hiria bigarren diskoa kaleratu berri dute **> 27**



**> JOKIN ZUBIA**
Oñatiko ETBko Gaur egun saioan lenean dihardúen kazetariarekin egon gara berbetan **> 29**

**KONTZERTUA** > DES-KONTROLEN ALDE

# Jarraitzaileek babes osoa eman zioten Des-Kontroli

**DES-KONTROL**
Pozik daude lortutako emaitzarekin eta jarraitzaileengandik jasotako babesarekin

**ARRAKASTA**
Uarkape pilotalekua jendez beteta egon zen kontzertua hasi eta amaitu arte



**DES-KONTROL** Gaueko protagonista nagusiak indartsu aritu ziren emanaldi osoan zehar. JOSETXO ARANTZABAL

**I.SORIANO /A.BARRUSO** > ARRASATE
Zapatukoa kontzertu berezia zen Des-Kontrolendako, eta jarraitzaile eta lagunek erabateko babesa erakutsi zioten talde arrasatearrari. Uarkape beteta, sekulako giroa eta kontzertu indartsuak guztiak. Des-Kontrolekoek 8.000 euro inguru behar dituzte jasotako salaketa baten isunari aurre egiteko.

Motherfuckers taldeak eman zion hasiera gauari. Ordu erdiko kontzertua eman zuten, hasieran jende gutxi, baina, saioa bukatu zutenerako Uarkape pilotalekua beteta zegoen.

Enboskada taldea izan zen taula gainera igotzen bigarrena eta azken diskoari izena ematen dion *Zilegi al da?* kantuarekin hasi zuten kontzertua. Oxel abeslariak, gero, kontzertuaren zergatia gogorarazi zuen eta euren elkartasuna adierazi zien Des-Kontrolekoei. Hitzok txalo zaparrada jaso zuten. *AHTrik ez* abestiak ere oihu ugari eragin zituen jarraitzaileengan. *Botas y tirantes* abesti ezagunarekin agurtu ziren Enboskadakoak.

Ukabilkada taldekoek ez zuten hutsik egin eta oso indartsu hasi zuten kontzertua; amaiera are indartsuagoa izan zen. RIPen *No hay futuro* kantuarekin bukatu zuten, eta euren jarraitzaileetako bat eskenatokira igo zen beraiekin abestera. Jendez betetako autobus batean etorri ziren Ukabilkadakoak Algortatik.

Never Surrender taldekoek beti bezain indartsu eman zuten kontzertua eta ohikoak diren bat bateko bertsioak egin zituzten, kantuak bata bestearekin lotuz. *The harder they come* abestiaren bertsioa gustura hartu zuten askok. *Oi Oi Oi Music* kantuarekin, bestetik, zoramena iritsi zen Uarkapera. Kontzertuarekin amaitzeko *Pottoko* abeslaria eskenatokitik jaitsi zen eta jende artetik abestu zuen azkeneko kantua.

Arkada Social hastearekin bat pogoa dantzatzen hasi ziren jarraitzaile guztiak. *Piensa* izan zen jo zuten lehenengo abestia, eta *Iros a la mierda*, eta *Sucias entrañas* izan ziren jo zituzten beste abestietariko batzuk. *Tabernan sartuta* abestiarekin kantuan hasi ziren jarraitzaile guztiak eta txalo asko jaso zituzten. Euren kontzertuetan ohikoa zen moduan *Esos del barrio* abestiarekin agurtu ziren Arkada Social taldekoak. Eskenatokira igo ziren zenbait lagunekin batera abestu zuten. Arrasateko rugby taldeko mutilak jardun zuten kontzertuan segurtasun lanak egiten eta aipatu behar da Arkada Socialek jo zuenean arazoak izan zituztela hesi metalikoak bere tokian eusteko.

DES-KONTROL

### Des-Kontrolekoak oso pozik daude jarraitzaile eta lagunek erakutsitako babesarekin

Kontuak ateratzen hasteko goizegi dela azaldu digu Markel Des-Kontrol taldeko kitarra joleak baina Des-Kontroleko kideak oso pozik daude zapatu gaueko kontzertuan jasotako babesarekin. "Oso ondo joan zen guztia, jarraitzaileek eta lagunek oso ondo erantzun dute eta antolatzaileek ikaragarrizko lana egin dute kontzertua aurrera ateratzeko. Jende horri guztiari eskerrak eman nahi dizkiegu" adierazi du Markelek. Datorren astean zenbait bilera egingo dituzte kontzertua antolatzen jardun duten talde desberdinekin eta orduan hasiko dira kontuak ateratzen. Emaitzak izan bezain laster publiko egingo dituztela azaldu du Markelek, jarraitzaileek hori eta gehiago merezi dutelako. Des-Kontrolekoek 8.000 euro inguru behar zituzten jasotako salaketa baten isuna eta epaiketen kostua ordaintzeko.

**DES-KONTROLEN *DESKONTROLA***
Goizeko ordu batak eta erdiak pasatxo zirenean agertu ziren eskenatokian Des-Kontrolekoak txalo eta ohiu artean. Gau guztian zehar berotuz joandako giroak eztanda egin zuen protagonistak eskenatokian iraun zuten bitartean.

Deialdiak izandako arrakasta ikusita gustura eta lasai aritu ziren Des-Kontrolekoak. Denbora gehien jo zuen taldea izan zen eta abesti zaharrak eta berriak tartekatu zituzten emanaldian.

Gainontzeko taldeek egin zuten moduan Des-Kontrolekoek ere Peio, Orreaga 778 taldeko abeslariarendako hitzak izan zituzten. *Peio askatu!* zioten oihuak behin eta berriz entzun ziren kontzertuan zehar eta.

(24. orrialdean jarraitzen du)

## Jarraitzaileek babes osoa eman zioten Des-Kontroli

(23. orrialdetik dator)

Kontzertuaren amaiera esanguratsua izan zen oso. *Mondra* abestiarekin agurtu ziren Des-Kontrolekoak eta poliki-poliki eskenatokia jendez betetzen hasi zen. Taldekoen lagun eta jarraitzaileak taula gainera igo ziren azkeneko abestia eurekin kantatzeko. 20 pertsona inguruk amaitu zuten eskenatokian *Mondra* abestia kantatzen.

Gau berezia izan zen zapatukoa Des-Kontrolekoentzat. Batetik, zapatuko kontzertuak zeukan helburuarengatik eta, bestetik, kontzertu horrekin datozen bost hilabeteetan egingo duten bira moduko bati hasiera eman ziotelako. Hemendik eta datorren urrira arte Des-Kontrolekoek 50 kontzertu inguru emango dituzte egubakitz eta zapatuetan.


**UKABILKADA** Gogotsu etorri ziren Algortatik. IMANOL SORIANO


**ZALEAK** Lehenengo ilaretan *deskontrola*. JOSETXO ARANTZABAL


**THE MOTHERFUCKERS** Oier, Alkorta eta Sala emanaldiko une batean. IMANOL SORIANO


**ENBOSKADA** *Zilegi al da?* diskoa aurkeztu zuten arrasatearrek. IMANOL SORIANO

## Arkada Socialekoek sekulako indarra erakutsi zuten berriz

2003an utzi zioten joteari Arkada Socialekoek. Eskenatokiak utzi aurretik, baina, hiru kontzertu eskaini zituzten joan den urtean eta sekulako arrakasta izan zuten kontzertuok. Zuzenak eta indartsuak dira, bai hitzak eta baita lantzen dituzten doinuak ere. Euren jarraitzaileek diote bereziak eta desberdinak direla. Oi eta punk musika gustatzen ez zaion jende asko aurkitu daiteke Arkada Socialen kontzertuetan. Zuzenekoak gainera oso indartsuak dira eta diskoaren estiloa mantentzen dute euren kontzertuetan.


Arkada Socialekoak berriz elkartu ziren zapatuko kontzerturako. JOSETXO ARANTZABAL


**NEVER SURRENDER** Pottoko jende artetik abestu zuen azken kantua. J. ARANTZABAL

**MUSIKA** > KASSIN +2 ARRASATEN

# Kassin, Domenico eta Morenorekin eserita eta dantzan

### Kassin +2 taldeak ia bi orduko emanaldi gozoa eta dantzagarria egin zuen zapatuan Amaian

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Nahiz eta Amaia antzokian ikusle gutxi elkartu, *jolaserako* gogoz etorri zen Alexandre Kassin, Domenico Lancelloti eta Moreno Velosok osatutako hirukotea Arrasatera. Taula gainean Stephan San Juanen (bateria eta perkusioak) eta Alberto Continentoren (baxua eta kitarra) laguntza izan zuten. Itxuragatik, gutxik asmatuko zuten eszenatokiko musikariak brasildarrak zirenik baina lehen akordeekin argi utzi zuten haien jatorria.

Ia bi orduko emanaldia egin zuten zapatuan, ikusleen konplizitatea lortuz. Lehen zatian Kassinen *Futurismo* lana aurkeztu zuten; kantu lasaiagoak eta gozoagoak ondoren etorri zirenekin alderatuta. Beharbada, Lancelloti samplerrarekin eta kantuan hasi zenean etorri zen kontzertuko zatirik ederrena, eta alaiena. Eserita egon arren, ikusleak dantzan (oinak behinik behin) jartzea lortu zuten. Ordurako, antzokiko albo baten dantzan ziren neska gutxi batzuk, musikarekin gozatuz. Moreno Velosok, gitarra eskuetan, kantu ederrak abestu zituen, lagunei eta xuxurlatzeko modukoak. Portugesa hizkuntza egokia da horretarako, ala? Eta esklusiba bat: kontzertua baino ordu erdi lehenago Arrasaten bertan konposatutako kantu bat eskaini zuten. Mimoarekin gertatu eta berehala jendaurrean aurkeztu, plater gozoekin gertatzen den moduan.


**BOST LAGUN** Ezkerretik eskumara, Moreno (jarrita), Stephan, Domenico, Alberto eta Alexandre. JOSETXO ARANTZABAL



AURTEN KONTUGAZTE ENTZUNENA
ORAIN, 3.000 €(1) (UTB %5,06) KONTUGAZTEN SARTZEAGATIK, IPOD NANO ZORAGARRI BAT EDO LOGITECH BOZGORAILUAK ZURETZAT.
Kontugazte
Gasturik eta komisiorik gabe
Deskontu eta zozketa asko
Kontuaren hileroko egoera kosturik gabe
Onura gehiago zure poltsikorako
MENU
Logitech
Biak nahi dituzula? Bada, erraz asko. Orduan Kontugazte kontuan 6.000 euro(1) sartu behar dituzu.
IBILI BIZKOR ETA EGIN ZEURE EKARPENA KUTXAREN EDOZEIN BULEGOTAN EDO KUTXANET BIDEZ(2). ETA GOGORATU: KONTUGAZTEREKIN, ZURE DIRUAK GEHIAGO BALIO DU.
(1) DIRUA ALDI BATERAKO GORDAILU BEREZI BATEAN EGONGO DA URTEBETEZ, ESKUDIRUTAN INTERESIK SORTU GABE. ESKAINTZA HAU 2008KO MARTXOAREN 3 ARTE BALIO DUTEN PFEZ ARAUEN MENDE DAGO. (2) BIDE HONETATIK AUKERATURIKO GAUZAK ETXERA BIDALIKO DIRA.
gazte kutxa
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa
Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 08/02/01 espediente zk.-duna.

Kantari Debagoienean

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ >** Otsailaren 19an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Ane Mondragon, Josune Odriozola, Maddi Moiua eta Nerea Elorza
**HERRIA >** Oñati
**URTEAK >** 11 urte
**ABESTIA >** *Kaiser soser*



**NOIZ >** Otsailaren 19an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Eric Martin, Josu Biain eta Unai Urrestarazu
**HERRIA >** Oñati
**URTEAK >** 8 urte
**ABESTIA >** *Maite zaitut*



**NOIZ >** Otsailaren 19an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Amaia Igartua, Janire Cueva, Jone Medrano eta Olaia Otero
**HERRIA >** Oñati
**URTEAK >** 12 urte
**ABESTIA >** *Lo egin*



**NOIZ >** Otsailaren 19an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Ana Novoa, Arantzazu Ampudia eta Jone Agirre
**HERRIA >** Oñati
**URTEAK >** 11 urte
**ABESTIA >** *Bi minutuero*



**NOIZ >** Otsailaren 19an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Lur Paramos, Mireia Santos eta Oneka Anduaga
**HERRIA >** Oñati
**URTEAK >** 10 urte
**ABESTIA >** *Laztana*



**NOIZ >** Otsailaren 21ean
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Ane Fernandez eta Maialen Ballina
**HERRIA >** Aramaio
**URTEAK >** 8 urte
**ABESTIA >** *Marea gora*



**NOIZ >** Otsailaren 21ean
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Jone Usatorre eta Lore Puente
**HERRIA >** Arrasate
**URTEAK >** 8 urte
**ABESTIA >** *Deabrutxo maitea*



**NOIZ >** Otsailaren 21ean
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Ainhoa Arana, Alaitz Mendizabal, Leire Alzola eta Maddalen Agirre
**HERRIA >** Arrasate
**URTEAK >** 11 urte
**ABESTIA >** *Amets bat*



**NOIZ >** Otsailaren 21ean
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Amets Ormaetxea, Irene Dolara eta Irune Loza
**HERRIA >** Arrasate
**URTEAK >** 10 urte
**ABESTIA >** *Atalaia*



**NOIZ >** Otsailaren 21ean
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Elena Markiegi, Mirian Goitia, Naiara Salaberri eta Uxue Okina
**HERRIA >** Arrasate
**URTEAK >** 8 urte
**ABESTIA >** *Furra furra*




Argazkian ezkerretik eskumara, Josu Errasti, Xabi Señor No, Karlos Irazu, Alberto Irazu eta Xabier Lekuona. J.A ARETA GOÑI "JUXE"

# "Xabi Señor No da gure taldeko gitarra-jotzaile berria"

Bi urteren ondoren Donostiako Captain Nemo taldeak *1280 Euskal Hiria* diskoa kaleratu berri du; lanean, hamar abesti bildu dituzte

Jules Vernek nobelan oinarrituta, Richard Fleischerrek egindako filma ikusi ondoren aukeratu zuten izena: Captain Nemo

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

**Josu Errasti eskoriatzarra Donostiako Captain Nemo taldeko kidea da. Disko berria kaleratu dute eta gitarra-jotzaile berria dute taldean. Zapatuan Bergarako gaztetxean egon ziren eta haiekin egin genuen berba.**

**Zergatik Captain Nemo?**

Zinemazale samarrak gara taldean eta hortik datozkigu abestietarako eta hitzak egiteko ideiak.Nemo Kapitaina Jules Vernes idazleak sortutako pertsonaia erakargarria da: hor ibiltzen da Nautilus izeneko urpekarian isolatuta eta munduaren kontra. Richard Fleischer zuzendariak egindako pelikula ikusi eta gero bururatu zitzaigun Captain Nemo izena jartzea taldeari.

**Bi urte egin duzue lan berria prestatzen. Zergatik hainbeste denbora?**

Beharra sentitu genuen abesti berriak ondo prestatzeko eta lokalean lasai lan egiteko. Denbora zen Metak diskoetxearekin "Korrontearen kontra, urpekari bat" lehen diskoa kaleratu genuenetik, eta beharra genuen apur batean kontzertuak emateari utzi eta abestiei beren bidea hartzen uzteko. Kontzertu asko eman genituen lehen diskoarekin eta nekatu samar geunden.

***1280 Euskal Hiria* izen jarri diozue. Nolatan?**

*Pop 1280* Jim Thompson idazlearen nobela beltz harrigarria da. Nobela horretako pertsonaia nagusia, Nick Corey sheriff ustela, benetan antologikoa baita. Xabier Olarrak euskaratuta irakur daiteke nobela hori: *1280 arima*. Erreferentzia hori sartu genuen diskoaren izenburuan gurean, azken aldian, askotan aipatzen den beste kontzeptu batekin nahastuta: Euskal Hiria. Seguru asko, Corey jauna oso ondo txertatuko zen Xabier Montoiaren *Euskal Hiria sutan* ipuin bilduman. Diskoaren izenburua erreferentzien nahasketa da, azken batean, guk Euskal Hiria nahiko beltz eta ustel ikusten dugula esateko.

**Nolako diskoa da?**

Gure ustez, jende askok punk rock etiketa estu jarri digun arren, gure musika ez da hain erraz sailkatzen den horietakoa. Era berean, 80ko hamarkadako hardcore taldeak entzuten hazi ginen, eta disko honetan abiaduran pittin bat moteldu garen arren, hori nabaritu egiten da.

Bestalde, abestietako hitzak nahiko lotuta daude elkarrekin, keinu asko dago abesti batetik bestera. Diskoak indar asko duela iruditzen zaigu eta nahiko landuta dagoela. Baina jendeak entzutea da onena: haien iritzia entzuteko gogoz gaude.

**Diskoa zuek ekoiztu duzue, zergatik?**

Captain Nemo da Captain Nemoren alde gehien borrokatuko dena. Hortaz, auto ekoizpena da gure bide naturalena, horrek aukera ematen ditu prozesu guztiak kontrolatzeko. Bestalde, gure diskoa Gor diskoetxeak banatuko du, eta benetan eskertzen diegu ahalegin hori.

**Aldaketak daude taldean. Kontatu egiguzu.**

Bai, Lander baxuak utzi egin du taldea diskoa grabatu ondoren. Orain, lehen gitarra jotzen zuen Errasti jarri da baxuan Landerren partez, eta bigarren gitarra bezala Xabi Señor No sartu zaigu. Oso gauza naturala izan da Xabi taldean sartzea, disko hau nahasten ari ginenean, maiz joaten ginen bere etxera bere iritzia jakitearren, eta diskoa izugarri gustatu zitzaion hasieratik, eta edozertarako, berarekin kontatzeko esan zigun. Oso pozik gaude egin dugun fitxaketarekin. Orain gaude taldean:Xabier Lekuona abeslaria; Josu Errasti eskoriatzarra, baxua; Alberto Irazu eta Xabier Señor No gitarra-jotzailea; eta, Karlos Irazu bateria-jotzailea.




## Bigarren diskoan, soinu sendoagoa

Korrontearen kontra, urpekari bat lehen lanarekin alderatuta, *1280 Euskal Hiria* izeneko diskoa apur bat motelagoa dela esan daiteke; baina, bigarrenean soinu sendoagoa landu du Captain Nemo taldeko boskoteak. Hamar kanta bildu dituzte: *1280 arima*, *Bagdadeko morroia*, *Bon voyage*, *Euskal Hirian*, *Ispilu*, *Itzulera*, *Izarretara*, *Koagulatuz*, *No man´s land* eta *Publicity gizon*. Entzuleen iritzia jakiteko gogoz dira; zuzenekoak indartsuak direla azpimarratu dute. Bergaran hori frogatu zuten zapatuan.

**Mireia Bikuña**

## gazte zerbitzuak

### BEKAK

**> Ikerketa-beka.** Errenteriako Udala. Koldo Mitxelena Ikerketa-beka euskal kulturari buruzko ikerketa alor guztietan sustatzeko, soziologia, historia, artea, antropologia, ekonomia, hizkuntzalaritza eta giza zientziak orokorrean. Epea: Apirilaren 18ra arte.

### EKINTZAK

**> Gaztemaniak.** Thunder Express & Sarris R&R Trio.Otsailaren 28an, Gazteszenan (Donostian), 21:00etan.

**> 19. Lilatona Donostian**. 5 kilometroko lasterketa herrikoia emakumeentzat martxoaren 2an, 11:00etan.

### IKASTAROAK

**> Agentea eta dinamizatzaile.** Larrialdeak Taldea. Toki-garapeneko agente eta dinamizatzailea izateko ikastaroa (380 ordu). Epea: Plazak bete arte.

**> Argazkilaritza.** Vasco de Camping Elkartea. Mendi, bidaia eta turismoko argazkigintza. Epea: Apirilak 7.

**> Jangelako begiralea.** Hezkide Eskola. Jangelako begirale ikastaroa (36 ordu). Epea: Otsailak 29.

### LEHIAKETAK

**> Pop-rock.** Leioako Udalaren VIII. Pop-Rock lehiaketa. Epea: Martxoak 14.

### LANA

**> Errenta teknikaria.** Bergarako Udala. Aldi baterako errenta teknikari bat, lan jardun erdiz, oposizio bidez kontratatzeko prozesua. 4. hizkuntza-eskakizuna izatea eskatzen da. Epea: Otsailaren 27a.

**> Atezaina.** Arrasateko Udaleko Aukea kirol erakunderako atezain bat hautatzeko oposizio deialdia. Epea: Otsailaren 22a.

**> Operari.** Itsasondoko Udala. Lan desberdinetako operario lanpostu bat betetzeko. Epea: Otsailaren 19a.

**> Begiraleak.** Mondragon Lingua. Begiraleak behar dira Euskadiko zenbait lekutan Mondragon Linguak 7-14 urteko haurrentzat uztailean antolatzen dituen ingeleseko udalekuetarako. Epea: otsailaren 27a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**
**sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 22 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 30 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan etxea salgai. 90 m2. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela handia, bi balkoi eta despentsa. Garajearekin. Erdi jantzia. 617 00 37 30 edo 943 78 71 35.

**Antzuola.** Sagasti kalean 85 m2-ko etxe berria salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta balkoia. Eguzkitsua, garaje eta trastelekuarekin. Erdi jantzia. 629 40 42 16 edo 656 75 86 97.

**Arrasate.** 45 metro koadroko etxebizitza salgai. Agerre kalean. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna, berritzeko. Dena kanpora begira. Trastelekua dauka. Deitu arratsaldeko seietatik bederatzietara. 645 70 08 27 edo 665 72 92 88.

**Arrasate.** 47 metro koadroko apartamentua, erdialdean kokatua. Berritua eta jantzita. Argitsua eta material ederrekin egina. 645 73 04 69.

**Arrasate.** Erdialdean 94 metro koadroko etxebizitza. Hiru logela, sukaldea, bi komun eta egongela. Igogailua eta berogailua. Garajea aukeran. Eraikin berria. 686 24 97 48.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 metro koadro . Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoa. 216.000 euro. 620 15 12 12.

**Arrasate.** Zerrajera kalean 80 metro koadroko etxea salgai. Bi logela eta bi komun. Dena kanpoaldera begira. 656 77 94 32.

**Bergara.** 90 metro koadroko duplexa salgai Ibargarai kalean. Erdi jantzia. Estreinatzeko dago. 16 metro koadroko garajearekin. 619 71 70 53 edo 943 76 54 72.

**Bergara.** Alde zaharrean etxea salgai. Bi logela, guztiz eraberritua. 649 56 34 92.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitza salgai. 75 m2, guztiz jantzia. Hiru gela, egongela, bi bainugela, sukaldea, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

**Bergara.** Bost urte dituen etxebizitza salgai Ibargarain. 92 metro koadro ditu, 21 metro koadroko terrazarekin. Garajea aukeran. 679 29 39 56.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. 90 metro koadro. Hiru logela, bi komun, igogailua eta garajea. Nahiko berria. *www.euskalnet.net/aguirre.* 630 60 47 75.

**Bergara.** Ortuibar kalean 90 metro koadroko etxebizitza salgai, 21 metro koadroko terrazarekin. Garajea aukeran. 679 29 39 56.

**Eskoriatza.** Baserria salgai. Bitan banatua dago eta alde bat dago salgai. 250 metro koadro. Lursailekin eta 500 metro koadroko lorategiarekin. Aparkatzeko lekua dago. Oso eguzkitsua. 420.700 euro. 647 64 02 81.

**Osintxu.** Duplexa. 42 m2. Bi gela, egongela, bainugela eta sukaldea. 98.000 euro. 665 71 48 30.

**Oñati.** 75 metro koadroko etxea. Hiru logela, egongela-jangela, bainugela eta eraberritutako sukaldea. Bi ganbara. Oso argitsua. Jantzia. 629 93 87 01.

**Oñati.** Diseinuko duplexa salgai. 120 m2. Kale Zaharrean. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Olakua auzoan. Hiru logela, sukaldea, bainugela, egongela, trastelekua eta garaje itxia barne. Guztiz eraberritua. 657 72 25 70 edo 665 72 87 89.

**Oñati.** Zubibarri kalean eraikitzen ari diren etxean duplexa salgai 1. eta 2. solairuak. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela handia, garajea eta trastelekua. Dena igogailuarekin lotuta. Eguzki energia termikoa. 670 85 85 41.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Berria, erdialdean eta guztiz jantzia. 636 73 54 94.

**Aretxabaleta.** Erdialdean etxebizitza berria emango nuke errentan. Guztiz jantzia. 636 73 54 94.

**Benidorm.** Etxebizitza errentan ematen da. Hondartza ondoan. 605 72 13 67.

**Bergara.** Etxebizitza emango nuke errentan Matxiategi kalean. 80 metro koadro, jantzia eta berogailuarekin. 638 86 82 53.

**Bergara.** Erdialdean dago. Sukaldea, egongela, bi logela eta eta bi komun. 900 euro hilean. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 679 86 64 38.

**Bergara.** Etxea errentan Barrenkalean. Bi logela, berrituta. 651 85 19 36.

**Conil (Cadiz).** Aste Santurako eta udarako apartamentua alokagai. 656 77 94 32.

**Costa Sancti Petri-Chiclana (Cadiz).** Udarako guztiz hornituta dagoen apartamentua errentan ematen da. Leku zoragarrian: urbanizazio berria, igerilekua, minigolfa, lorategiak... La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Oropesa del Mar (Castello).** Apartamentua errentan Marina d'Oren. Hondartzan lehenengo ilaran. Bi logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Bi igerileku. 4-6 pertsonarentzat. 685 75 62 51.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Baserria.** Bizitzera sartzeko egoeran dagoen baserri edo txalet motako eraikina alokatu nahian nabil. Gutxienez 300 metro koadrokoa eta 2.000 metro koadroko lursailekin. Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. 945 44 53 28.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 610 91 33 40.

**Debagoiena.** Etxea errentan hartuko genuke. 943 76 05 46.

**OÑATI**

**Jatetxeak sukaldaria behar du. Ordutegi eta baldintza onak.**
**943 42 30 07**

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garajea salgai Masterreka kalean. 651 70 90 12.

**Oñati.** Kale Zaharrean garaje bat salgai. 635 20 64 18.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuolako** Antigua auzoan garajea errentan ematen da. 680 73 82 60.

**Bergara.** Masterrekan garajea errentan ematen da. 651 70 90 12.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea errentan hartuko nuke Burdiñate, Artekale edo Zurraderon. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasaten.** Bulegoa emango nuke errentan Jose Luis Iñarra kalean. 45 metro koadro. Komuna eta biltegi ditu. 400 euro. 699 37 15 11.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Neska koadrila batek lokal bat alokatu nahi du. 695 74 27 95.

**Lokala** behar da alokatzeko Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Argitsua, berdegunezein parke ondoan kokatua eta gutxienez 150 metro koadrokoa. 945 44 50 19.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

**Bergara.** Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 661 06 07 23.

**Bergara.** Erizain laguntzaile titulua duen neska euskalduna zaharrak eta umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 625 19 08 63.

**Bergara.** Esperientzia duen mutila gertu goizetan harategian lan egiteko. 610 91 33 40.

**Bergara.** Neska gertu adinekoak edo umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko. 610 84 94 85.

**Debagoiena.** 30 urteko mutila eskaintzen da taberna edo pub batean asteburuetan lan egiteko. Esperientziaduna. Telefonoa: 687 75 25 36.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbitasun lanak egiteko gertu. Gauez edo orduka ere egingo nuke lan. 678 80 96 01.

**Debagoiena.** Emakume bat prest umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 628 00 09 06.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Deitu 696 11 01 94 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egin edo garbiketa lanetarako. Luz Eidyth. 943 03 45 06.

**Debagoiena.** Eraikuntzan lan egingo nuke. Urtarriletik aurrera. Esperientziarekin. Telefonoa: 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Etxeko lanak eta tabernako lanak egin edo pertsonak zainduko nituzke. Emakume arduratsua. 667 20 56 29.

**Debagoiena.** Marmolista. 10 urteko esperientziarekin. Telefonoa: 617 89 47 36.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lanerako gertu: garbitze lanetan, nagusiak zaintzen edo peoi. 610 95 79 79.

**Debagoiena.** Neska arduratsua prest orduka lan egiteko; garbitasun edo taberna lanak egin edo pertsonak zainduko nituzke. 639 44 41 20.

**Debagoiena.** Pertsona gertu atariko garbiketak egiteko. Lanean seriotasuna eta asteko edozein egunetan lan egiteko gertu. Telefonoa: 649 63 23 24 edo 696 38 10 07.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko emakumea prest. Baita etxeko lanak egin edo lokalak garbitzeko. 617 89 47 36.

**Debagoiena** Mutil gaztea lanerako gertu: garbitze-lanetan, lorezain edo peoi. 647 19 36 95.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Eskoriatza.** Batxilergoko azken kurtsoko ikasle batek kimikako eta fisikako eskola partikularrak jasoko lituzke. 608 47 25 79.

### 502. EMAN

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailetako eskola partikularrak emango nituzke. 685 76 70 82.

**Arrasate.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira Arrasaten. Maila guztiak. Arratsaldez deitu, mesedez. 679 23 25 64.

**Oñati.** Eskola partikularrak emango nituzke zapatu goizetan (6-12 urte). Irakasletzan diplomaduna eta Psikologiako ikaslea naiz. 651 70 85 13.

**Oñati.** Esperientzia handiko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu, DBHraino. 943 78 28 43.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**4x4** automobila salgai. Oso egoera onean dago. 2001ekoa. 11.500 euro. 655 72 04 12.

**Derby Senda** R motorra salgai. 49 cc. 4.000 kilometro bakarrik. Ondo dago. 670 60 02 65 edo 943 76 32 27.

**Ford Transit Conet** furgoneta salgai. 2004koa. 100.000 km. 8.000 euro. 943 53 37 79.

**Honda CB 600** motorra salgai. 1998koa. Berri-berria. 25.000 km. 4.300 euro. 699 37 15 11.

**Honda CR** motorra salgai. 250 cc. 1999koa. 1.200 euro. 686 37 71 39.

**Honda** CBF 250 motorra salgai. 2006koa. 7.000 km. Garantia ofiziala. Estra, maleta eta kupula. 686 67 17 38.

**Mercedes Vito.** 110 ZP. Diesela. 55.000 km. Aire girotua. ASR. ABS. 18.000 euro. 680 69 32 65.

**Seiscientos** urdina salgai, SS matrikularekin. 6.000 euro. 666 24 17 65.

**Volvo.** Auto on baten bila bazabiltza, aukera ezin hobea! Deitu eta ikusi!. Telefonoa: 656 74 95 03.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Katua** daukat salgai. Azazkalak kenduta dauzka. 100 euro. 696 11 01 94.

### 703. EMAN

**Txakur emea** emango nuke, ezin dudalako zaindu. Kanela kolorekoa eta arraza nahasikoa da. 696 11 01 94.

**Txakurrak.** Hiru txakurkume ditut emateko; arraza txikikoak dira. 943 76 06 92 edo 620 07 95 64.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Alazena** salgai. Egurrezkoa. Sukalde edo egongela baten jartzeko aproposa. Egurra errustikoa da eta frontalean azulejoak ditu. Oso kapritxosoa da. 645 00 53 32.

**Video 30 GB**, zuria. Oso gutxi erabilia. Eraman itzazu 7.500 abesti eta bideoak zurekin. 125 euro. Deitu telefono honetara: 635 73 22 72.

**Sifoiak** saltzen dira. Telefonoa: 943 76 46 90.

**Terrazako altzariak.** Zortzi mahai, 40 aulki, bi eguzkitako (publizitate gabe). Salneurria, adosteko. Deitu telefono honetara: 650 80 80 39.

**Ume-kotxea** salgai. Red Castle Sport, CityLink markakoa. Oso egoera onean. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

**sifoiak** Sifoi botilak saltzen dira. 943 76 46 90.

### 802. EROSI

**Orturako** errotaitzur bat erosiko nuke (mutikultorra). 653 01 69 74.

### 806. GALDU

**Arrasate.** Belarritakoa galdu nuen, otsailaren 1ean, parrokiako irteeran. Perla borobila dauka. Deitu telefono honetara: 669 52 69 62.

**Patinete gorria** galdu nuen orain dela hiru aste Bergarako Ipintza ikastetxeko jolastokian. Deitu telefono honetara: 607 66 02 44.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Gasteiztik** Debagoienera etortzeko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Bi errelebutan egiten dut lan. 945 24 74 65.


**Otsailaren 18a: 162. zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 18, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**Realeko txaleko bat.**
- Ricardo Txintxurreta Nazabal (Oñati)

**'Markak Gernika 1937'**
**Bernardo Atxagaren azken liburua.**
- Begoña Alonso Eguren (Bergara)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

**163. zozketako saria**

**ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN**
**Fadoak ikusteko aukera, Martxoak 1ean.**
**Lau sarrera banatuko dira**
**(irabazle bakoitzari bi)**

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
943 08 10 50
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
38 euro
2008ko urteko kuota

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 18



**> Bixente Pagoaga protagonista, erreportajean 21:47**

Goiena Telebistako egubakoitzetako eguraldi berri emailea da Bixente Pagoaga. Eguraldi iragarpena egiteko dituen metodoen berri emango digu.

**13:15** Emisio hasiera
**13:20** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**13:45** Gaurkoak
**13:47** Berbaire
**14:15** Danbaka: Little Little Much.
**14:45** Albiste aurrerapena
**15:15** Eltze beroa
**15:45** Gaurkoak
**15:47** Didjeridu
**16:15** Mandio
**16:45** Albiste aurrerapena
**17:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**17:45** Gaurkoak
**17:47** Sustatuk 5 urte
**18:15** Loramendi elkarteak 20 urte
**18:45** Albiste aurrerapena
**19:15** Danbaka berezia
**19:45** Berriak
**20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**20:45** Berriak
**21:15** Teknopolis
**21:45** Gaurkoak
**21:47** Hitz Bitan
**22:15** Santamasak
**22:45** Berriak
**23:15** Berbaire
**23:45** Gaurkoak
**23:47** Jazzmina
**00:15** Emisio amaiera

### Martitzena, 19



**> 'Kantari' saioan Oñatiko umeen txanda da gaurkoa 20:15**

*Kantari* ikuskizuna saioen amaierara iristen ari da. Izan ere, datorren astekoak izango dira azken saioak. Oñatiko umeen txanda da gaurkoa.

**13:15** Emisio hasiera
**13:20** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**13:45** Gaurkoak
**13:47** Berbaire
**14:15** Danbaka: Little Little Much.
**14:45** Albiste aurrerapena
**15:15** Eltze beroa
**15:45** Gaurkoak
**15:47** Didjeridu
**16:15** Mandio
**16:45** Albiste aurrerapena
**17:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**17:45** Gaurkoak
**17:47** Sustatuk 5 urte
**18:15** Loramendi elkarteak 20 urte
**18:45** Albiste aurrerapena
**19:15** Danbaka berezia
**19:45** Berriak
**20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**20:45** Berriak
**21:15** Teknopolis
**21:45** Gaurkoak
**21:47** Hitz Bitan
**22:15** Santamasak
**22:45** Berriak
**23:15** Berbaire
**23:45** Gaurkoak
**23:47** Jazzmina
**00:15** Emisio amaiera

### Eguaztena, 20



**> 'Euskal artzainak Ameriketan' 21:47**

*Euskal artzainak Ameriketan* dokumental sortaren bigarren atala eskainiko dute eguaztenean Goiena Telebistan, iluntzeko 21:47an.

**13:15** Emisio hasiera
**13:20** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**13:45** Gaurkoak
**13:47** Berbaire
**14:15** Danbaka: Little Little Much.
**14:45** Albiste aurrerapena
**15:15** Eltze beroa
**15:45** Gaurkoak
**15:47** Didjeridu
**16:15** Mandio
**16:45** Albiste aurrerapena
**17:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**17:45** Gaurkoak
**17:47** Sustatuk 5 urte
**18:15** Loramendi elkarteak 20 urte
**18:45** Albiste aurrerapena
**19:15** Danbaka berezia
**19:45** Berriak
**20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**20:45** Berriak
**21:15** Teknopolis
**21:45** Gaurkoak
**21:47** Hitz Bitan
**22:15** Santamasak
**22:45** Berriak
**23:15** Berbaire
**23:45** Gaurkoak
**23:47** Jazzmina
**00:15** Emisio amaiera

### Eguena, 21



**> Lost Souls taldekoekin elkarrizketa 22:15**

*Musikantoi* saioan, Lost Souls taldeko kideak elkarrizketatuko ditu Maider Arregik. Taldea, *25 hits of Mondra* diskoan hartu du parte.

**13:15** Emisio hasiera
**13:20** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**13:45** Gaurkoak
**13:47** Berbaire
**14:15** Danbaka: Little Little Much.
**14:45** Albiste aurrerapena
**15:15** Eltze beroa
**15:45** Gaurkoak
**15:47** Didjeridu
**16:15** Mandio
**16:45** Albiste aurrerapena
**17:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**17:45** Gaurkoak
**17:47** Sustatuk 5 urte
**18:15** Loramendi elkarteak 20 urte
**18:45** Albiste aurrerapena
**19:15** Danbaka berezia
**19:45** Berriak
**20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**20:45** Berriak
**21:15** Teknopolis
**21:45** Gaurkoak
**21:47** Hitz Bitan
**22:15** Santamasak
**22:45** Berriak
**23:15** Berbaire
**23:45** Gaurkoak
**23:47** Jazzmina
**00:15** Emisio amaiera

### Egubakoitza, 22



**> Xabier Silveira bertsolari naparra 'Ilunpean' saioan 22:15**

Lesakan jaiotako bertsolaria da Xabier Silveira. Hainbat txapelketa irabazi ditu. *Gara* egunkariko kolaboratzailea da eta idatzi ere egiten du.

**13:15** Emisio hasiera
**13:20** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**13:45** Gaurkoak
**13:47** Berbaire
**14:15** Danbaka: Little Little Much.
**14:45** Albiste aurrerapena
**15:15** Eltze beroa
**15:45** Gaurkoak
**15:47** Didjeridu
**16:15** Mandio
**16:45** Albiste aurrerapena
**17:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**17:45** Gaurkoak
**17:47** Sustatuk 5 urte
**18:15** Loramendi elkarteak 20 urte
**18:45** Albiste aurrerapena
**19:15** Danbaka berezia
**19:45** Berriak
**20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
**20:45** Berriak
**21:15** Teknopolis
**21:45** Gaurkoak
**21:47** Hitz Bitan
**22:15** Santamasak
**22:45** Berriak
**23:15** Berbaire
**23:45** Gaurkoak
**23:47** Jazzmina
**00:15** Emisio amaiera

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Balletaz gozatzeko sarrerak zozketatuko ditu Arrasate Irratiak 10:30**

Fagor Arrasateren 50. urteurrena dela-eta, Mozart maisuaren bi koreografia eskainiko dituzte Ballet Biarritz taldeko dantzariek Arrasateko Amaia antzokian hilaren 23an. Sarrerak zozketatuko dituzte irratian.

### Zapatua

**10:00** Asteko gainbegiratua. *Ilunpean* saioan, Exkixu taldeko Alex Sardui; musika kontuak, *Kantaka* saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) *Zaharrak berri* saioan, eta beste.

### Domeka

**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik eguaztenera

**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## gertutik



**Jokin Zubia**
Kazetaria

# "Kritiken beldur banintz, ez nintzateke lan honetan arituko"

**MIREN ARREGI** > BERGARA

**Oñatiarra da Jokin Zubia. ETBko *Gaur egun* saioan asteburutako kazetaria da, eta albisteak egiteaz arduratzeaz gain, gaurkotasuneko erreportaje laburrak ere egiten ditu. 1987az geroztik dihardu EITBn lanean; izan ere, Leioako kanpusean kazetaritza ikasketak amaitzear zegoela hasi zen Euskadi Irratian lanean. Egun, kazetari lana zuzenbide ikasketekin bateratzen du; astean zehar klaseak hartzen ditu, eta aste buruetan lana egiten du.**

**Asteburutan lana egitera gorputza ohitu egiten da?**

Urte mordoa daramat asteburutan lanean, eta bai, gorputza ohitu egiten da. Gogorrenak zapatuak izaten dira, baina ondoren astean zehar lau jai egun izatea zoragarria da. Ez da erraza jendeak jai daukanean norbera lanean egotea baina oso polita da jendea lanera doanean jai izatea.

**Politikako gaiak lantzen dituzu, gustuko dituzulako ala horrela egokitu zaizulako?**

Denetarik egin izan dut, eta politika gaiak egia esan egokitu egin zaizkidalako egiten ditut. Batzuetan gustura egiten ditut, baina niretzat oso garrantzitsuak dira egubakoitzetan egiten ditudan erreportajeak. Burua beste gai batzuetan izatea deskonektatzeko modua izaten da. Politika arloan guztia oso antzerakoa izan ohi da. Politika arloko erreportajeak ere egin izan ditut eta horrelakoak adibidez, gustura egiten ditut.

**Politika gaiak beldur pittin batekin egiten dituzu? Kritika gogorrak entzun behar izaten dira?**

Kritiken beldur izango banintz ez nuke ez politikako gairik eta ezta beste alor batzuetako gairik jorratuko. Izan ere, kalean denetik entzutea tokatu zait, eta ezin dut horri begira egon. Aldeko eta kontrako iritziak edo kritikak entzuten dira, batzuetan albiste bat egin duzulako txalotzen zaituzte, beste batzuetan izugarrizko astakeriak entzun behar izaten dira.

**Zenbat gai lantzen dituzue egunean?**

Egubakoitzetan erreportajea bukatuta uzten saiatzen naiz. Asteburutan berriz, gai bakarra lantzen dugu egunean, baina askotan alde batetik bestera ibili behar izaten dugu.

## asteko hitzorduak

### Ibilaldia



ARRASATE

**> Industrializazioaren gaineko ibilaldi gidatua egingo dute zapatuan**

Arrasateko historia ezagutarazteko *Harutze ta Honutze, Mondrauen* programaren barruan, industrializazioaren gaineko ibilaldi gidatua antolatu du AEDk. Arbolapetan hasiko dira, 12:00etan eta 18:00etan.

### Erakusketa



OÑATI

**> Ilunpetan argazki taldearen erakusketa hilaren 22ra arte**

Gaztelekuko kuboan, gaztelekuan lan egiten duen Ilunpetan argazki taldeak bere lanen erakusketa jarri du. Hogeitik gora argazki ikusteko aukera dago astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

### Zinema



ELGETA

**> 'Munich' filma emango dute etzi, eguaztena, Espaloia antzokian**

Steven Spielberg-en *Munich* filma emango dute. 2005ean, bost Oscarretarako izendatu zuten. Israelgo zerbitzu sekretuek Munich-eko Joko Olinpikoetan israeldar batzuen hilketa prestatu zuten gizonak hil behar dituzte.

## kuxkuxeroa



Arritxu Barruso

# Parranda bai, baina non eta noiz?

Behin baino gehiagotan entzun dut gure ibarreko gazteok oso parranda zaleak garela, eta zapatuan goizeko bostetan etxeratu ondoren ezin ba nik aurkakorik esan. Baina noiz eta non egiten dugu parranda ibarreko gazteok? Bergarako kasua dut gertukoen. Zapatuan afaria izan ostean kaletik bueltatxo bat ematera irten ginen, 17 laguneko koadrila. Goizeko bostak arte gustura ibili ginen lagun artean, baina, egia esan, eta gaur kontuak ateratzen hasita, geuk betetzen genituen tabernak. Ez zegoen giro gehiegirik kalean, edo beste era batera esanda ez zebilen inor kalean. Ez naiz ni oso parranda zalea, baina uste dut azken urte hauetan geldo samar dabilela gaueko kontua gure bailaran. Pirinioetatik urrun gauden arren, Pirinioetan botatzen duen elurrak ere badu eraginik horretan; ibarreko gazte askok etxeak alokatzen dituzte Frantzian eta Jaca inguruan neguan eskiatzera joateko. Baina ez dira eskiatzera joandakoak herrian falta diren bakarrak. Gero eta gehiago dira zapatu gauean parranda egiteko herritik kanpora joaten direnak. Zapatuan ikusitakoa ikusita ulertzekoa ere bada. Horren parranda zaleak bagara, baina, beharbada ahalegin txiki bat egin beharko genuke bertako parranda berpizteko.

**"Gero eta gehiago dira zapatu gauean parranda egiteko herritik kanpora joaten direnak "**

## hildakoak

- **Antonio Izagirre Artetxe**
Eskoriatzan, otsailaren 14an. 99 urte.
- **Concepción Jauregialtzo Arrizabalaga**
Arrasaten, otsailaren 14an. 83 urte.
- **Asun Azkargorta Errasti**
Arrasaten, otsailaren 14an. 73 urte.
- **Bienvenido Martinez Andres**
Arrasaten, otsailaren 15ean. 85 urte.
- **Sor Rosalia Jaka Razkin**
Oñatin, otsailaren 15ean. 95 urte.

## asteburuko albuma



**'Kanika zuri-beltzak' antzezlana.** Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta, *Kanika zuri-beltzak* izeneko lana eskaini zuen Debako Goaz taldeak egubakoitzean. Kritika soziala egiten duen antzezlanean gizarteak baztertuta dituen hainbat pertsonaia aurkeztu zituzten, besteak beste, zoroa, emagaldua eta isolatutako aita-alabak. Eskenatokian, zuri kolorea izan zen protagonista.





**Erretiratuendako musika emanaldia.** Arantza eta Pantxo bikoteak musika estilo ezberdinak jo zituen zapatuan Elgetako Espaloia kafe antzokian. Udalak antolatutako dantza saioan erretiratuak izan ziren protagonistak. Hain zuzen, Udalaren gonbidapen pertsonalizatuak jaso zituzten etxean. Gainera, dantza egiteko aukera izan zuten. Elorrioko taldeak girotutako bi ordutako dantzaldian, rancherak, tangoak, cumbiak eta milongak jo zituzten erretiratuen gozamenerako.

**Rock Privado taldearen kontzertua.** Donostiako Rock Privado taldeak *En todo este tiempo* diskoaren aurkezpen kontzertua eskaini zuen Oñatiko gaztelekuan, zapatu gauean. Lagash taldeko bateria-jotzaile izandako Andoni Regueiro oñatiarra da Rock Privado taldeko kideetako bat.

Ordu eta erdiko iraupena izan zuen emanaldiak eta batez ere, *En todo este tiempo* diskoko hamalau kantak jo zituzten. Era berean, taldearen abesti zaharragoak eta diskoan sartu ez diren beste batzuk eskaini zituzten. Kontzertua bukatu aurretik, gaztelekuan bildutako entzuleen eskariz, bi bis eskaini zituzten. Kontzertuaren bukaeran gustura zeuden Rock Privado taldeko kideak, "entzuleengana heldu garela uste dugu eta oso pozik goaz Oñatitik", esan ziguten.



## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxumutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
*astelehena@goiena.com*

**Joventut taldeko entrenatzailearekin.** Otsailaren 7tik 10era saskibaloiko Kopa txapelketa jokatu zen Gasteizen. Hitzordu hura aprobetxatu zuten argazkian dauden Larraitz Arriolabengoa arrasatearrak eta Oihan Azkarate semeak Badalonako Joventut taldeko ordezkariekin argazkiak egiteko; besteak beste, Aito Garcia Reneses entrenatzailearekin (argazkian) eta Ricky Rubio eta Rudy Fernandez jokalariekin. Argazkiak taldeko hotelean egin zituzten.



## zorion agurrak



OÑATI
**Aimar Etxebeste Bolinaga**
Otsailaren 13an, 4 urte. Hau mutikotia! Zorionak eta patxo ugari etxekuen partetik.



BERGARA
**Saioa Galarraga Pardina**
Otsailaren 13an, 8 urte! Zorionak etxeko guztien partetik!



OÑATI
**Beñat Ugalde**
Otsailaren 15ean, 10 urte bete dituzu ia. Datorrenean, hankako behatzekin zenbatzen hasi behar! Zorionak txapeldun! Etxekoak.



ARETXABALETA
**Aitor Lagunilla Amozarrain**
Otsailaren 15ean. Zorionak aitatxo! Ilargiraino eta bueltta maite zaitugu. Aitzol, Oskitx eta amatxo.



OÑATI
**Alazne Irazabal Kortabarria**
Otsailaren 16an. Zorionak prexioxa!! Ondo ondo pasau zure urtebetetze eguna eta besarkada handi bat Ama, Maialen eta OMaiderren partez!



ESKORIATZA
**Julen Arriolabengoa Beitia**
Otsailaren 16an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Edu Gonzalez**
Otsailaren 16an. Zorionak eta ondo ondo pasa! Muuuu...aaaksss! Danok, jeje!



ESKORIATZA
**Joxeba Gabilondo**
Otsailaren 16an. Katxizorixonaak! Japiberde tuyu! Katxiburuon partetik egun ona pasau. Ta nahiz ta irlandan egon bieldu ama, lasai, traguak inbitetan. zalue!



OÑATI
**Uxue Murguzur eta Anartz Murguzur**
Uxuek otsailaren 17an urtetxo bat beteko du eta, Anartzek, berriz, otsailaren 18an beteko ditu urteak. Zorionak eta laztan handi bat etxeko guztien partetik!



ARRASATE
**Andoni Arratibel**
Otsailak 18-an 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Nagore Sasiain Herrera**
Otsailaren 19an, 4 urte. Zorionak printzesa! Patxo haundi bat. Ondo ondo pasa Aner, Jokin eta Oierren eta Arizmendi Sanvi txikiko lagunen partetik.



OÑATI
**Ainhoa Tatiegi eta Jone Arrazola**
Otsailaren 19an, urtebetetzea. Zorionak wapas! Oso ondo pasau eguna eta aprobetxau. Kuadrillakuan partetik!



ARETXABALETA
**Jon Akizu**
Otsailaren 20an, urtebetetzea. Zorionak eta ondo pasau eguna! Patxo haundi bat Aitzi eta Oinatzen partez.



LEINTZ GATZAGA
**Asier Urizar**
Otsailaren 20an, urtebetetzea. Zorionak guapuoi! Urte askotarako. Amatxo eta amama.



OÑATI
**Gorka Bolinaga**
Otsailaren 20ean 10 urte. Zorionak familiakoen partetik, bereiziki etxekoak. Ondo pasa Gorka.



ARRASATE
**Danel Uribesalgo**
Otsailaren 20an. Zorionak txapeldun! Egun ona pasa ta horrela segi. Patxo pila Zigarrolakuen partetik.



BERGARA
**Ibai Etxabe**
Otsailaren 20an 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat familiaren partetik.



OÑATI
**Jone Orueta**
Otsailaren 21ean urtebetetzea. Zorionak kuadrillako danan partez! Ondo ondo pasau eguna!



ARRASATE
**Aimar Gomez Martins**
Otsailak 23an, 3 urte. Zorionak amatxo eta ibanen partetik eta patxo handi bat amana eta osaba-izebaren partetik.



ARRASATE
**Lander eta Garazi Agirre**
Otsailaren 23an 3 urtetxo. Zorionak eta patxo handi bana biontzako. Ondo pasau! Etxekoen partetik.



ARRASATE
**Maider Gomez Ibaibarriaga**
Otsailaren 23an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik.

## jaiotakoak



**Oier Axpe Garro**
Arrasate > 3,980 kilo. Otsailaren 12an. Gurasoak: Marta (Arrasate) eta Luis (Arrasate). Argazkian, Oier jaioberria, kunan lo.



**Izaro Martin Zugazti**
Eskoriatza > 2,540 kilo. Otsailaren 12an. Gurasoak: Nerea (Eskoriatza) eta Juan Carlos (Eskoriatza). Argazkian, Izaro jaioberria, kunan lo.



**Iraitz Arregi Luazaristi**
Oñati > 3350 kilo. Otsailaren 12an. Gurasoak: Ane (Oñati) eta Gaizka (Oñati). Argazkian, Iraitz jaioberria, amaren besoetan.



**Julen Diaz de Lezana Flores**
Arrasate > 4,07 kilo. Otsailaren 15ean. Gurasoak: Jokin ( Arrasate) eta Ana ( Arrasate). Argazkian, Julen jaioberria, amama Abaren besoetan.



**Hugo Alberto Roca Montaño**
Arrasate > 4,100 kilo. Otsailaren 16an. Gurasoak: Oscar (Arrasate) eta Rosemari (Arrasate). Argazkian, Hugo Alberto jaioberria, familiarekin.



**Uzuri Tena Hidalgo**
Arrasate > 3,390 kilo. Otsailaren 17an. Gurasoak: Rosa (Arrasate) eta Antonio (Arrasate). Argazkian, Uzuri jaioberria, kunan lo.



**Irati Pelayo Osa**
Oñati > 3,470 kilo. Otsailaren 16an. Gurasoak: Amaia (Oñati) eta Iñaki (Mendaro). Argazkian, Irati jaioberria, kunan lo.




ASTELEHENEKO
Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-02-18

**Tasio Erkizia** > Irakaslea

# "Eliza beti izan da herri txikien zapaltzailea"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

**Tasio Erkizia politikan eta irakaskuntzan aritu aurretik Agustindarretan ikasten ibili zen zenbait urtetan, abade egiteko. Eta horren ondorioz, Oñati ezagutzeko aukera izan zuen. Hala, lagun dezente ditu oraindik Oñatin.**

**Zelan gogoratzen duzu zure haurtzaroa Lesakan?**

Euskal giroan, giro oso lasai eta naturalean, baserrian. Oroitzapen oso politak ditut. Errebelde samarra nintzen, baina, bestalde, orduan ez zegoen aukera handirik: sei anai-arreba ginen eta diruz larri genbiltzan. Gainera, 10 urte nituela aitak istripu larria izan zuen; eta horren ondorioz hiru bat urte egin behar izan nituen ondoko baserri baten morroi lanetan.

**Noiz erabaki zenuen abade izan gura zenuela?**

10 bat urterekin zerbait ikasi gura nuen. Handik irteteko ia aukera bakarra zen. Iruñako Seminariora joan gura nuen, baina ez zegoen dirurik horretarako. Azkenean, Lesakako Agustindarrek eskaini zidaten Oñatiko Seminariora joatea. Han, Oñatin, artalde moduan ibiltzen gintuzten, baina oso oroitzapen onak ditut: ikasteko aukera izan genuen, lagun oso onak egin genituen, eta ordutik Oñatin lagun handiak dauzkat.

**Gerora abitua betirako utzi zenuen...**

Bai, konturatu nintzen hobe zela herriaren alde egitea, Elizaren alde baino. Eliza-gizon jator asko ezagutu ditut, baina Eliza beti izan da herri txikien eta langileen zapaltzailea. Nahiko berandu hartu nuen erabaki hori: 26 urterekin uztea pentsatu nuen; eta poliziak torturatu ostean, betirako utzi egin nuen. Poliziaren eskuetan egon ostean, hiru hilabete egin nituen ospitaleko zaintza zerbitzuan oso egoera larrian. Medikuek uste baino lehenago osatu nintzen.

**Zer eman eta zer kendu dizu politikak?**

Eman dit ilusioa, utopia jarraitzeko, duintasunean mantentzeko kemena, elkartasuneko inguru zabala... Eta kendu dizkit erosotasuna eta gaur egungo gizarteak eskaintzen dituen ustezko abantailak. Baina, nahiz eta bizitza gogorra izan, zorte oneko gizona naiz.

**Zer da lagun arteko afari bat kantu barik zuretzat?**

Egia esanda, pixka bat tristea. Nik asko maite dut kantagintza, eta afalondo baten bertsotan puntuka edo kantuan egitea izugarri gustatzen zait. Nire seme-alabak ere euskaltzaleak dira, eta alaba bertsotan ibiltzen da.

TEST-A

**Herria:** Lesaka. **Adina:** 64 urte. **Ikasketak:** Psikologian lizentziatua. **Zaletasunak:** Mendia eta kantagintza. **Bete duzun amets bat?** Inguru batean pertsona maitatua izatea. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Euskal Herriak bere independentzia eta burujabetasuna eskuratzea. **Musika talde bat?** Benito Lertxundi da niretzat kuttunena. **Nora egingo zenuke bidaia bat?** Kubara. 1980an izan nintzen, eta itzultzeko amorratzen nago.



**POLITIKA** Euskal Herriaren alde lan asko egindakoa da Tasio Erkizia. ARGAZKI PRESS

## ai, ene!



### Bihotz-taupadak dituen kuxina

Maiteminduendako opari aproposa topatu dugu: bihotz-taupada propioak dituen kuxinak. Bi tamainatan saltzen dituzte: txikiena 24 eurotan eta handiena 34 eurotan.

http://mybeatingheart.com

## biharamuna

Iñigo Biain

### Demokrazia, maitasuna eta joko garbia

Aurten ere joan zaigu Balentin Deunaren eguna, egutegian maiteminduentzako erreserbatua dagoen egun hori. Baina Aritzek ezin izan dio aurten arrosarik erosi Maitaneri. Kepa ere saiatu zen bere kuttuna den Iñakiri oparitxoa erosten, eta berdina egin zuen Arantxak Sararentzat. Baina aurten ezinezkoa izan da opariak normaltasunez erostea. Izan ere, aurtengo otsailaren 14an, greba orokorra izan zen deitua Ezker Abertzalearen zati baten legez kanporatzearen aurka, eta bat baino gehiagok espero ez bazuen ere, herriko kaleetako komertzio eta taberna gehienak itxita azaldu ziren goizean goizetik. Bitartean, Oñatiko udaletxean demokrazia eta justiziarekiko "maitasun" ekintza bat dago askoren ahotan. Izan ere, bezperan bozkatu zutenek garbi erakutsi zuten grebaren aldeko jarrera, baina bozkatu ez zutenen eraginez, quorumera heldu ez, eta bozketa balio gabe gelditu zen. Estrategia bikaina. Horrela, ezezko botoa eman nahi duenak, ez dauka aurpegia eman beharrik ere. Bozketara ez joan, eta kito. Demokraziaren jolasean epailerik balego, txartel horiren bat erakutsi beharko luke gutxienez, joko garbiarekiko maitasunaren izenean.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +15 | +05 |

Egun haizetsuarekin hasiko dugu astea. Goizean zehar hodeiak agertzen joango dira eta arratsaldean estali samar geratuko da zerua.

www.euskalmet.net

Ingurumena zaintzea guztion kontua da.

Toyota Prius autoak Hybrid Sinergy Drive teknologia dauka. Gasolina eta elektrizitatea konbinatzen duten motorrekin, CO2 emisioak eta airea kutsatzen duten beste substantzia batzuk gutxitzeko lan egiten dute.

Toyota Prius, matrikulazio zerga ZERO euro. Helburua: kutsadura maila ZERO izatea.

Toyota Prius 2008 **22.500 €**-tik aurrera

Probatzeko, gertuen duzun kontzesionariora joan maiatzaren 31 baino lehenago.

www.euskoauto.toyota.es




TOYOTA

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI